ttipi ttapa

303

2001eko maiatzak 31 • XXI. urtea



## Gure Txokoako neskak txapeldun 25

Gipuzkoako liga irabazi dute Berako neskek, partidurik galdu gabe. Heldu den denboraldian Maila Nazionalean jokatu edo ez erabaki behar dute orain.




## Botika berriak jartzeko eskeak 04

Inguru honetan 29 farmazia berri irekitzeko eskaerak egin dira, apirilaren 2an zer erran ugari eman dituen Foru Legea argitara eman zenetik.

# 03 Bertizaranako Eguna antolatu dute gazteek



# MUEBLES AMETS

**Sarrera BERAtik da**

*Alkaiagako industrialdean*

*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*

*Larunbat arratsaldetan irekia*









**4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko**






**Sukaldeak**
**Egongelak**
**Logelak**
**Bainugelak**

## DATUAK...

- Ekainaren 2an lehendabiziko aldiz Bertizaranako eguna ospatuko da Legasan. Antolatzaileek gonbidapen berezia luzatu diete Oieregikoei
- Batzordean 5 gazte daude baina Narbate eta Legasako askok lagunduko dute eguna aitzinera ateratzen.
- 350.000 pezetako aurrekontua Bertizaranako Udalak, Legasa eta Narbarteko kontzejuak eta BKZk ordaintzen lagunduko dute.



Asier Goicoetxea

**Joxean SUBIZAR** *Bertizaranako egunaren antolatzailea*

# «Orain gazteak ongi konpontzen gara eta hori probextu nahi dugu»

Rakel Goñi

**Noiz erabakitzen duzue Bertizaranako Eguna antolatzea?**
Duela hilabete eta erdi udalatik deitu ziguten ea Bertizaranako Eguna antolatzeko moduan ginen. Hiru kontzejuek posible genuenez baietza eman genuen.

**Oieregiko kontzejuaren hutsa nabari da programan.**
Bai, arazo ttiki bat dago: Oieregin gazte gutti dago eta beraiek harreman handiagoa dute Oronozkoekin, Narbarte eta Legasarekin baino. Dena den ez omen dute gogo handirik eguna ospatzera etortzeko.

**Zeintzuk dira Bertizaranako egunaren ekitaldiak?**
Goizeko bederatzietan besta hasten dela iragartzeko suziriak botako dira eta gosaria eginen da. Hamarretan futbito partidua hasiko da eta bitartean errekan, BKZk antolatua, piraguak ibiliko dira. Hamabi eta erdietan herri kirolak izanen dira. Bi ordu eta erdietan haranako bazkaria ospatuko da bi menu bereziekin. Arratsaldeko seietan soka tiraren ordua iritsiko da eta zortzietan dantzaldia hasiko da. Gaueko hamarretan afaria izanen da frontoneko kanpan eta besta bukatzeko gaupasa hamabietan hasiko da Laiotz taldearekin.

> **«Ziur gaude Legasako eta Narbarteko jendea etorriko dela eta nahiko genuke Oieregikoak ere biltzea»**

**Bertizaranatar sentimendua bizirik al dago?**
Noski baietz, gauza da orain sentimendu hori sakontzen saiatzen ari garela. Duela hogei urte edo, gaztedia banatua zegoen eta giro nahiko txarra zegoen. Oraingo belaunaldikoak arras ongi konpontzen gara eta egoera probextu nahiko genuke.

**Inguruko bailaren itzala haundia da?**
Dudarik gabe, beti erran ohi da Baztan-Bidasoa edo Baztan, Malerreka eta Bortziriak. Askok uste dute Bertiz bera Baztan dela, Bertizaranatik salto egiten dute. Bertzeak bertze horretarako antolatzen da besta, hiru kontzejuz osatutako bailara bat garela errateko: Oieregi, Narbarte eta Legasa. Bertizaranako Egun honetan haraneko jendea bildu nahi dugu. Badakigu oraindik Bordatxo irekia egongo dela eta Berroetako bestak direla eta, jendea banatu egingo dela. Ziur gaude Legasako eta Narbarteko jendea etorriko dela eta nahiko genuke Oieregikoa ere biltzea.

**Lehendabiziko aldia da horrelako besta egiten dela?**
Antzeko bestak egin izan dira baina inoiz ez honelako Bertizaranako Eguna, hiru herriak batu nahi dituena. Ikusiko dugu nola ateratzen den. Hurrengo urteetan egun honekin jarraitzea espero dugu, gustatuko litzaiguke herriz aldatzea, hurrengo urtean Narbarten, eta ikusiko dugu Oieregikoak biltzen badira, han ere ospatzeko modurik baden. Arazo ttiki bat dute Oieregin, han ez dago frontoi estalirik baina Narbartekoekin moldatu daitezke, niri aunitz gustatuko litzaidake denak biltzea.




Zenbait herritan konpetentzia handiari aurre egiteko prestatu beharko dira botikariak. Farmazia jartzeko inolako itxaropenik ez zutenek bertzalde biziko aukera izango dute "liberalizazio" honekin.

# Hogeita bederatzi eskaera eskualdean farmaziak jartzeko

**Eskualdean 29 botika berri irekitzeko eskaerak egin dira apirilaren 2an Nafarroako Gobernuak Foru Legea publikatu zuenetik. Geroztik, batez ere hautaketa irizpideek zer erran ugari sortu dituzte. Bertzalde, gure herrietan hainbertze botika paratzea bideragarria izanen den ala ez galdetzen diote aunitzek bere buruari. Momentuz uztail-abuztu bitarte esperatu beharko dugu zenbat lizentzia emanen diren jakiteko.**

**Rakel GOÑI**

Eskualdeko herririk nagusienetan jaso dira farmaziak irekitzeko eskaerak. Beran (7), Leitzan (6), Lesakan (6), Donezteben (4), Elizondon (4) eta Oronozen (2). Zenbait botikarik herri berean bi eskari egin dituzte eta bada ere eskualdean jadanik botika duena baina bertze herri batean jarri nahi duena. Nafarroako Osasun Sailak sortutako komisioak uztaila edo abuzturako emanen du farmaziak irekitzeko baimena lortu dutenen zerrenda.

Liberalizazio honetan hutsune nabariak daude eskariak aztertzeko orduan, hori dela eta Nafarroako Gobernuko legelariak erreglamendu bat prestatzen ari dira irekiera lizentziak nola banatu behar diren finkatzeko. Eskaera noiz egin den kontuan hartuko da, eta horren arabera banatuko dira irekiera baimenak. Halere Nafarroako Gobernuaren prentsa bulegotik TTIPI-TTAPARI egindako adierazpenetan 450 farmazia berri jartzeko asmoa zegoela aipatu dute eta eskaria urriagoa izan denez farmazialari gehienek izanen dutela negozioa irekitzeko baimena baieztatu da. Ez berean baimen hau norbaiten uka tzen bazaio bertze lokala bilatu edo bertze herri baterako eskaria egin de zake. Herri berean, farmazia batetik bertzera 150 metro izanez gero nahi adina botika paratu daitezke.

### Botikari bakoitzak toki bat baino gehiago proposa dezake

Apirilaren 2an Cervera Osasun kontseilariak prestatu Foru Legea publikatu zenetik Nafarroan ehunda eskari egin dira botika berriak ezar tzeko. Farmazien Foru Legeak dio enaren arabera eskatutako herrian lokala jartzeko tokia proposatzea fe

## Mari Jose SANZ *Berako botikaria*

**Zer ekarri du zuretzat lege aldaketa honek?**

Nire biziko aukera da, ez nuen ia itxaropenik lizentzia bat lortzeko. Legea oso zorrotza zen orain arte eta oraingoa zentzugabea da, baina nik egoera probextuko dut. Orain gaztea naiz eta edonon hartzen naute farmazia laguntzaile bezala, baina urteak pasa ahala, botikari gazteak nahiago izanen dituzte adinekoak baino eta nire geroa ziurtatu nahi dut.

**Bideragarriak izanen dira hainbertze botika herri berean?**

Nik argi daukat ez dudala izugarrizko dirutza irabaziko, hasierako urtean alokairua ordaintzeko ateratzen badut pozik egonen naiz. Orain arte farmazilari aunitzek irabazten zuten diru kantitatea izugarri murriztuko da eta denda arruntetan dituzten soldatak izanen ditugu guk ere. Zerbitzu ona ematea izan beharko da gure helburu nagusia eta mostradorearen aurrean lan egiteko balio ez duenak zaila edukiko du, edozein dendatan bezala.

**Iruditzen zaizu legeak hutsuneak dituela?**

Noski baietz, lasterka egin dute eta honek arazoak sortuko ditu. Nik goizeko bederatzietan Beran eskaera egin badut eta bertze batek ordu berean Lesakan, nire lokalaren ondoan dagoen bertze bat proposatu badu, nork du lehentasuna? Bertzalde, bakoitzaren merituak kontuan hartu beharko lirateke, ez da berdin promozioan lehena izan dena, eta doktoregoa egin duena edo zortzi urtez karrera ezin atera ibili dena. Zentzurik gabekoa da egin den guztia. Halamoduzko liberalizazioa izan da, inolako planteamendu seriorik gabe.

## Nafarroako Botikarien Elkargoa

**Zein da Botikarien Kolegioak orain duen jarrera?**

Legea aprobatu zenean ez zegoen inolako erreglamendurik hautaketa egiteko. Orain eskaerak egin ondotik erreglamendu hori egiten ari dira. Botikarien Elkargoan lege dekretua eta bere garapena aztertzen ari gara eta laster epaitegietara joko dugu dauden huts juridiko nabariak errekurritzeko. Epaileek arrazoia eman edo kenduko digute.

Orain arte zegoen sistema ona dela uste dugu, dena den farmazien kopurua igotzera prest geunden baina ez orain egin den moduan. Nafarroan 308 botika egotetik 765era pasatuko da. Herri askotan taberna baino botika gehiago egonen da. Botikarien Elkargoarentzat hau ez da liberalizazioa, kopurua handitzea da, ezin zaitezkelako edozein tokitan jarri. Zerbitzuari kalte egingo dio legea botikarien bizkarrera egin delako, lehendik zeuden botikarien eritziak kontutan hartu gabe. Farmazia asko ireki bezain laster itxiko dute. Nafarroan bakarrik garatu da lege hau, beste autonomi elkartekoak gurean eskakizuna egin dezakete baina guk ez dugu inolako eskubiderik beste autonomietan.

**Zer iruditu zaizue hautaketa egiteko erizpiderik ez izatea?**

Erreglamendurik ez izateak asko harritu gaitu, erreglamendu hau osatzen hasi direnean eskaerak eginda zeuden eta hautaketa egiteko proposamenak interneteko foro batean egin dira. Gauzak presa handiarekin egin dituzte. Istiluak sortuko dira, lehena iritsi denak lizentzia lortuko duelako. Bertzalde, edozein botikarik du tokiz aldatzeko eskubidea eta Gobernuak ez ditu kontutan hartu libre geratuko liratekeen lokal horiek bertze botikariren bati eskeintzeko.




...mazia batetik 150 metrora egotea, botikariaren titulazioa izatea eta tasak ordaintzea ziren betebeharrak. Gure eskualdean hogeita bederatzi eskari jaso badira ere denek ez dute farmazia irekitzeko baimena jasoko batzuk herri berean bi tokitan eskatu dutelako eta, ematekotan, lizentzia bakarra emanen zaielako.

**Farmazilariak kexu**

Orain arte ia esklusiboak izan diren saltoki hauek erronka berria dute orain: elkarren arteko konpetentzia. Kontsumitzaileek farmazien aukera handiagoa izanen dute baina ez dago argi konpetitibitate honek zerbitzuaren hobekuntza edo prezioetan ofertak ekarriko dituen ala ez. Farmazilarien Elkartetik kexu agertu dira, lege berri hau minimoen legea dela uste baitute eta zalantza aunitz sortzen dituelako. Bakoitzaren merituak deustarako balio ez izatea, eta erregistroan arinen sartuta daudenak lehentasuna izatea lotsagarria da eurentzat. Kontuan hartu behar da eskaerak ez zirela aukeratutako barrutian erregistratu behar, hau da, Iruñean Berarako eskakizuna erregistratu zitekeela eta postaz bidaltzea ere posible zela.

### ESKUALDEAN ESKATUTAKO BOTIKAK

| Herria | Helbidea | |
|---|---|---|
| Bera | Alzate 5 | * |
| Bera | Bidasoa 38/40 | |
| Bera | Bidasoa 43 | * |
| Bera | Bidasoa 14 | * |
| Bera | Legia 31 | * |
| Bera | Foruen Plaza 6 | |
| Bera | Eztegara Pas. 30 | * |
| Lesaka | Albistur 39-G | * |
| Lesaka | Antoiu 21 | |
| Lesaka | Antoiu 13 | |
| Lesaka | Arretxea 7 | |
| Lesaka | Bittiria 30 | * |
| Lesaka | Plaza Zaharra 5 | |
| Doneztebe | Ameztia 14 | |
| Doneztebe | Donamariako Errep. | |
| Doneztebe | Leitzako Errep. 27 | * |
| Doneztebe | Nagusia 3 | |
| Elizondo | Braulio Iriarte 7 | |
| Elizondo | Jaime Urrutia 3 | |
| Elizondo | Santiago 58 A | |
| Elizondo | Santiago 50 | |
| Oronoz | Sta. Maria 33 | |
| Oronoz | 121N-B C blokea | |
| Leitza | Elbarren 52 | |
| Leitza | Elbarren 59 behea | * |
| Leitza | Elbarren 59 behea II | * |
| Leitza | Elbarren 95 | |
| Leitza | Elgoien 6-8 | * |
| Leitza | Patxi Arrazola 79 | |

* zeinua duten eskatzaileek gutxienez bertze eskakizuna egin dute

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Beranduegi

Metoan musuka ari ga-
renean
jengle matxistek
gaiki begiratuko digute
kalelgi horretan
askotik helduak bagau-
de
anatxikontserbadoreek
kafesnea muturrera
botako digute
Plazan ipurdia ikutzen
badizut
kadetxe pribatuetako
ureen burlak jasan
beharko ditugu
Herriko sorgin
hizontzienen modura
ekanekin ikusten
bagaituzte.
Begirada xamur bat
eskaintzen badizut
Acción Católicako
konetako batek
Diario de Navarran
erri guzia
okupatuko lukeen
gutun bat
idatziko luke
psikiatriko batean sartu
beharko gintuztela
proposatuz
Ezker abertzaleko buru
jauntu batzuek
Abba dantzatzen
ikusten bagaituzte
independentziaren alde
ezin dugula
borrokatu erranen
digute
eta marikoiak telebista
bidez
deskubritu dutenek
pisteko dute
denak Boris eta Klaudio
bezain ergelak garela
Naziek motoaren
kaskoan
ortzadarraren pegatina
daramagula ikusten ba-
gaituzte
ez ezazue gutaz otoitzik
egin
negar egin
doluminik
damurik
sentitu
Berandu izango delako
Beranduegi.

**Garikoitz ARRESE**
**Iñaki LAREO**

**Asier LARRETXEA**
**Baztan, Malerreka eta Bortzirietako gay eta lesbianen gazte taldea.**

zure
herriko berriak
egunero
Emisioa:
arratsaldeko 5etan
Errepikapenak:
goizeko 11etan
eguerdiko 1etan
arratsaldeko 5etan
ttipi-ttapa
telebista



## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Nabarra, 01eko Apirilaren 3a

*«23 urterekin belauneko ligamentoak hautsi nituenean lesio hura erretiroa hartzeko modukoa zen eta orduan ohartu nintzen zer zen pilotari izatea. Orduan ikusi nuen bizitza hau etzela hain polita, inor ez zela inor baino gehiago, askotan gu jainkotuak egoten gara. Ia ia lesio horrek mesede egin zidan pentsatzeko pilotaria nintzela baina sufritu gabe ez nintzela sekula ezer izanen».*

Julian RETEGI
Eratsungo pilotaria
Nabarra 01-04-03

*«Batzar Nagusiko aferak, pastizaIak, errotulazioak..., mendiko zinegotziek eta herri lurra dagoen alkate-juradoek aitzinetik ikusten dituzte, egin beharrekoak eginez. Hortaz Udalak afera horiek erabakita utz ditzake, eta horrela Batzar Nagusia, haraneko arazoak lantzeko baliatzen ahal da: lana, industria...».*

Santi ALDAKO
Elizondoko alkate ohia
*Arranbela 01-Udaberria*

*«Iruñeako maratoi erdia irabazi ondotik zoriondu naute Lesakan (...), baina Nafarroako iparraldean kirol hau ez da bultzatzen behar den bezala».*

*Rafa MARITXALAR*
*Korrikalaria*
*D.Navarra 01-05-21*

## • 11 GALDERA LABUR •



### Iñigo ITURRALDE *Berroetako gaztea*

- **Aktore profesionala izatea gustatuko litzaizuke?**
  Ez, afizionatua izatearekin nahiko eta honekin batera besta eta giro ona bada hobe.
- **Nekazaritza edo industria?**
  Industria, ez dut afiziorik nekaritzara.
- **Tokatuz gero zer eginen zenuke milioi ugarirekin?**
  Lehenik ongi ospatu eta gero berdin, lanean jarraitu.
- **Zer du Berroetak han segitzeko?**
  Lasaitasuna, herriko giro polita, ahal bada hemen geldituko naiz.
- **Basaburuak autobusa behar du?**
  Hobe litzateke autobusen bat pasatzea, herriak nahiko baztertuak daude.
- **Anizkoak ala Zigakoak?**
  Basaburukoak orokorrean, berexiak gara. Herri kirolak zirela eta gazteak aunitz elkartzen ginen eta hala seg-tzen dugu.
- **Oporretan mendira ala itsasora?**
  Ahal bada bietara, bakoitza bere mo-mentuan.
- **Bestetan zein da gehien maite du-zun ekitaldia?**
  Lehenengo eguna jendea fresko be-goelako eta zikiroa.
- **Zerbait ere falta da bestetan?**
  Beno aspaldian asto karrera egite-genuen eta aunitz gustatzen zitza-ten, arras ongi pasatzen genuen.
- **Noizbait Berroetako alkatea izanen zara?**
  Hori ez zazula galdetu ere egin. Be-tzenaz hurrengo urtean ni izendatu-naute eta orandik ez dut gogorik.
- **Elizondon biziko zinateke?**
  Bertze erremediorik ez bada...

**Lanchas**
• Parketak - Tarimak
• Kutxilatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735

ZALAIN JATETXEA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

KAXULA
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
✆ 948 63 75 58

ERROTAZAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

PIKABEA pinturak
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • BERA

IKASTETXEAK

# Elizondoko BHIko ikasleak Bartzelonako Enpresa Simulatuen Azokan egon ziren

## Orotara 15 bezero berri lortu zituzten jarritako dastaketa postuan

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Institutuan Administrazio eta Finantzako Goi Heziketa Zikloko lehenengo maila ikasten ari diren ikasleak, Bartzelonan ospatu zen 4. Enpresa Simulatuen Nazioartelo Azokan parte hartu zuten apirilaren 26 eta 27an. Bertan euren enpresaren produktuak ezagutzera eman zituzten. Dastapen mugikor batean patxarana, pattaka, mandragora, menta likorea eta erregaliza likoreen laginak dastatzera eman zieten, beraien enpresarekin merkatal harremanak izan dituzten enpresei baita bezero-gai izan zitezken guztiei ere. Arizkungo Licores Baztan enpresa laguntzailea izan zen dastatzeko likoreak eman, laginak botilatu eta bere diseinuko produktua utzi baitzien.



**Elizondoko BHIko bi ikasle Bartzelonako 4. Enpresa Simulatuen Azokan jarri zuten likoreen dastaketa postuan.**

GHZren lehenengo mailan dauden ikasleak hasi berriak dira Baztan Likoreak S.A.S enpresa simulatuan. Bartzelonan azoka hau prestatzen ari zirela ikusita Elizondoko Institututik bertara joateko eskaera egin zen. Formakuntza bisitaldi honetan helburu nagusia, ikasleak azoka bat zer den ikasi eta bizitzea izan zen, bidenabar SEFED sarean dauden bertze enpresa simulatuekin harremanetan jartzea nahi zuten. Bisitaldiaren emaitza merkatal ikuspuntutik arras emankorra izan zen ikasleak Espainian banatuak dauden enpresetatik 15 bezero berri egin baitzituzten, era berean 18 eskaera berri jaso zituzten. Hemendik aitzinera ikasleek duten erronka bezeroak kontent mantentzea da.

Simulazio programa hau ikasturteko lehen bi hiruhilekoetan Administrazio arloko goi-mailako prestakuntza zikloko ikasleek hasi zuten. Orain hauek praktika errealak hasi dituztenez lehen mailakoak hasi dira enpresa simulatuan lanean. Programaren lehendabiziko zatian 12 ikaslek hartu zuten parte. Ikasleek metodologia honekin motibazio berezia erakusten dutela eta jarrera positiboak sustatzen direla argi gelditu da azken hilabeteotan egindako lanaren ondotik.

BORTZIRIAK

### *Errepresaliatuen aldeko mendi martxa*

Asteburu honetan Bortzirietan errepresaliatuen aldeko mendi martxa ospatuko da. Ekitaldiak larunbatean, ekainaren 2an, arratsaldeko ordu bietan hasiko dira Etxalarren kalejira eta irteerarekin. Ondotik Arantzan ongi etorria eginen zaie ibiltariei eta afaldu ondotik solasaldia izanen da. Igande goizeko 9etan gosaria eginen da Arantzan bertan, ondotik irteera egiteko. Igantzin 10,30etan kalejira eginen da. 12:30etan ongi etorria izanen da Lesakan, gero 14,00etan Arranon bazkaltzeko. 16,30tan Berarantz irteera egingo da. Han 6,30etan San Migel zubian ongi etorria eta ekitaldia eginen dira.

Partehartzaile bakoitzak bi mila pezeta ordaindu beharko ditu irteerara hurbiltzen denean eta izenak, Beran, Errekalde eta Bidaxkan; Lesakan, Arrano eta Berrin; Arantzan, Aterpe eta Zuzainian eta Etxalarren Elutxan eman daitezke. Ekainaren 1ean amaitzen da epea partehartzaileentzat.

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA E-MAILA
SKANNERRA
PAPERTEGIA
ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
Eztegara 26 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

Haritza
belardenda
Mediku naturista kontsulta
Masajista
Legia 1, behea • BERA • ✆ 948 630652

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41 Tfnoa: 948 630 ... BERA

BERA

# Udal zerbitzuak hobetzeko iritziak bilduko dira herritarren artean

## Ekainaren 11tik 13ra auzo-bilerak eginen dira Herriko Etxean

Asier GOGORTZA

Berako Udala eta Nafarroako Gobernuaren elkarlanaren bidez sortu da ekimen hau. Gaur egun Herrikoetxetik bizilagunei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzea da helburua, eta horretarako azken hauen kritika eta proposamenak ezagutzea interesgarria iduritzen zaio Udalari. Horretarako inkesta bat eta bilerei buruzko informazio orriak partitu dira ttipi-ttaparen ale honekin batera, beraz, hortik ikasiko duzue auzobilera noiz eginen den. Ekainaren 11, 12 eta 13an arratsaldeko 6etan eta 8etan eginen dira bilerak Herrikoetxean, eta Udalak familia bakotxetik guttienez lagun bat agertzea eskatu du.



**ERTZ musika esperimentalaren jaialdia bigarren aldiz eginen da ekainaren 8 eta 9an Berako Kultur Etxean. Ortziralean Bilboko Antzerkiola Imaginarioa eta Drama Laborategia antzerki talde bilbotarrekin hasiko da jaialdia. Eurekin batera Bartzelonako d_infection taldea eta Fennesz austriarra egonen dira. Biharamunean, berriz, Zarauzko Cafe Teatro taldeak hasiko du emanaldia, eta ondotik berez getxotarra izanik Londresen bizi den Mattinek hartuko du lekukoa. Convolution taldeko Mark Cunningham eta Silvia Mestres izanen dira hurrengoak eskenatokira goitzen, eta bukatzeko musika esperimentalaren historiko bat: Charlemagne Palestine. Musikarekin batera ikusentzunezko emanaldiak ere izanen dira.**

## Altzateko bestak

### *Ekainaren 8tik 10era izanen dira aurtengo Altzateko Bestak*

Ekainaren 8an hasiko dira Altzateko bestak, bainan bezperatik izanen da giroa berotuko duen ekitaldirik. Izan ere, ekainaren 7an futbolin txapelketa eginen da Bidaxka, Zizka eta Pui ostatuetan, arratseko 8,30etan.

Biharamunean pilota goxo txapelketa jokatuko da Eztegaran, arratseko 8etatik aitzinera.

Larunbatean berriz altxaferoa botako da eguerduab eta arratsaldean patinaje txapelketa haurrendako. Ilunabarrean bertso poteoa eta txistulariekin kalejira ospatuko dira Altzaten barna.

Igandean, azkenik, arrantza lehiaketa eginen da aurten ere, goizeko 9etatik 12etara. Arratsean, berriz, musika izanen da bazter guzietan: 7etan Berako Perkusio eskola Zizkan, 8,30etan Irats taldea plazan eta arratseko 11,30etan Las Brujas Puin.

## FLASH

### *Igerilekua*

Ekainaren 15ean irekiko da Berako igerilekua. Aurten Naiara Mai..., Asier Saragueta eta Itsaso Iantzi izanen dira arduradunak.

### *Zaragozara bidaia*

Uxua emakume taldeak Zaragozara egunpasa joateko autobusa antolatu du ekainaren 9rako. Goizeko 7etan abiatuko dira Toki Oneko aparkalekutik.

### *Mendi itzulia*

Denetara 420 bat lagunek egin zuten Berako Mendi Itzulia, inoiz baino mendizale gehiago, beraz.

### *Zinea Kultur Etxean*

Ortziral honetan, ekainak 1, hasiko dira helduentzako Kultur Etxeko zine emanaldiak, eta ongi hasteko Ken Loach-en "Ogia eta Larrosak" filme berria eskainiko da. Arratseko 10etan hasiko da emanaldia, eta 300 pezeta gostako da sarrera.

### *Batzarra*

Gure Txokoako zuzendaritza batzordea berritzeko batzarra eginen da ekainaren 1ean [illegible]motenean, arratsaldeko 7,30etan. Batzordeko kideek agertzeko deia egin diete bazkideei, garrantzi handiko gaia delakoz eta egin diren azken bilkuretan hagitz jende gutti bildu baita.

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.
Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

© 948 631462
Altzate 1 • BERA
Xirrit

LESAKA

# Lore eta landareak solasgai Herri Eskolak antolatu ikastaroan

Ekainaren 6 eta 13an izanen dira solasaldiak Beko-Errotan

Aitor AROTZENA

Lore eta landareei buruzko solasaldiak antolatu ditu Herri Eskolak Udalaren laguntzaz. Ekainaren 6 eta 13an, asteazkenarekin, emanen dira solasaldi hauek Beko-Errotan, arratsaldeko 3,30etatik 4,30etara. Solasaldi hauetan parte hartzeko lehenbailehen eman behar da izena okindegian.

### Musika Eskolako matrikula epea

Lesakako Musika Eskolak 2001-2002 ikasturterako matrikula epea ekainaren 11tik 22ra irekiko du. Horretarako, goizeko 8etatik 11etara joan beharko da Herriko Etxeko bulegoetara. 1996an sortutako haurrak urrian hasiko dira lehen aldiz. Era berean, helduen tailerrean parte hartu nahi dutenentzat ere matrikula epea irekiko da.

### Aqua taldeak hartu du igerilekua udan

Udal igerilekua ekainaren 15etik irailaren 15era zabalduko da, urtero bezala. Aqua, S.I. taldeak eginen ditu garbiketa eta bertze lanak.



**Musika eskolako ikasleek ikasturte bukaerako kontzertua eskaini zuten maiatzaren 17an Irain eskolan. Bertzalde, akordeolari taldeak ere bere kontzertua eskaini zuen maiatzaren 19an elizan.**

Talde hau bederatzi lagunek osatzen dute eta Javier Iantzi lesakarra da arduraduna, joan den urtean bezala. Denboraldi osoko bonoa, 4.300 pezetakoa izanen da 18 urtetik goitikoentzat, 2.370 pezetakoa 11-18 urtekoentzat eta 1.610 pezetakoa 4-10 urtekoentzat.

### Herriko pilotari ttikiak Belatek antolatu txapelketaren finalerdian

Herriko pilotari ttikiak ari dira Belate elkarteak antolatutako Udaberriko pilota sarian. Gares eta Orkoienen kontrako norgehiagoketan ongi aritu ziren Beñat Oronoz eta Ander Olaizola benjaminak, Imanol Arozamena, Mikel Aitor Flores eta Lander Arriola alebinak eta Jon Iribarren, Jon Olaizola eta Xabi Maritxalar infantilak, Justo Agirretxe irakaslearen erranetara. Finalerdietarako txartela eskuratu dute eta Igantziren kontra ariko dira, ekainaren 3 eta 10ean.

## Bertso paper lehiaketa

### Igor Gurrutxaga Bortzirietako txapeldun Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoen artean

Igor Gurrutxaga Errandonea, Tantirumairu ikastolako ikaslea txapeldun suertatu da Bortzirietako bertsopaper lehiaketan, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleen artean. Maiatzaren 15ean saria jaso eta bertsoak kantatu zituen Berako Kultur Etxean.



Igor Gurrutxaga



PERTSONAIA

Rafa MARITXALAR

### Iruñeko Maratoi Erdian garaile suertatu zen

Rafa Maritxalar korrikalaria irabazle suertatu zen maiatzaren 13an Iruñean burututako Maratoi Erdian. Ezusteko garaipena izan zen Barakaldo taldearen izenean ari den lesakarrarentzat, orain arte lasterketa laburragoetan aritzen baitzen. Lehen aldia, beraz, lasterketa luzean aritzen zela eta garaipena lesakarrarentzat. Maritxalarrek zioenez, lehendabiziko kilometroetan nahiko lasai joan zen lasterketa eta bederatzigarrenean erasotzea pentsatu zuen. Lasterketa akautu ondotik erraten zuenez, *«arriskatu egin dut eta ongi atera zait»*. Guzira 806 lasterkalarik hartu zuten parte proba honetan. Maritxalarrek ordubete, sei minutu eta 50 segundu behar izan zituen proba burutzeko. *«Entrenatu eta laister egiten duten bakoitzean ongi pasatzeko egiten dut, eta ahal bada, irabazteko. Garaipen hau hagitz berezia izan da»*.

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANA Amarikena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948637573 • LESAKA

Marian Mendiberri
Estetika

ETXALAR

# IX. Gasna Feria Eguna ekainaren 10ean izanen da

Andra Mari elkartean eskulan-erakusketa jarriko dute

**Joseba eta Nerea**

Heldu den igandean, ekainaren 10ean, izanen da IX. Gasna Feria eguna. Urtero bezala, eskualdeko gasnagile eta artisauek hitzordua dute Etxalarren. Goizeko 10ak aldera artisauek beraien postuak paratuko dituzte herriko frontoian eta 11k bitarteko epea izanen dute baserritarrek beraien gasnak lehiaketara aurkezteko. Goiz osoan postuak ikusgai egonen dira eta gasnak probatzeko aukera ere izanen dute hurbildutakoek. 1,30etan aurtengo gasna saridunak emanen dira ezagutzera eta dagozkien sariak bilduko dituzte egileek. 2etan bazkaria izanen da frontoian. Txartelak 2.000 pezetatan salgai daude Elutsa ostatuan. Bazkalondoren, Manolo Arozena, Estitxu Arozena eta Alaitz Rekondo bertsolariek saioa eskainiko dute. Arratsaldeko 5,30etan herriko Andra-Mari dantza taldeko ttikienek beraien emanaldia aurkeztuko dute. Egun guzian herriko trikitilariek animatuko dituzte plaza bazterrak.


ARTXIBOKOA

**Artisauen postuak ere ikusgai izanen dira Gasna Feria egunean.**

### *Eskulanen erakusketa*

Gasna Feria eguna aprobetxatuz, herriko emakumeek eskulanen erakusketa prestatu dute Andra-Mari elkartean. Urte dexente dira emakumeek eskulan ikastaroa antolatzen dutela, Mari Pui Urtasunen gidaritzapean. Urte guzian astelehenero eta ortzilero Eskola Zaharretan biltzen dira eta bertan eginiko lanak jendearen aitzinean paratuko dituzte ikusgai Gasna Feria Egunean.

### *"Trizikloa" antzerkia*

Heldu den larunbatean, ekainaren 9an, Mairu antzerki-taldeak "Trizikoa" helduentzako antzeslana eskainiko du herriko plazan, ilunabar aldera. Euskara Batzordearen bidez ekarritako antzerki hau, Udazkeneko Kultur-Zikloaren barrenean antolaturik zegoen, baina gibeleratu egin behar izan zen. Hori dela eta, Gasna Feria bezperara ekartzea erabaki dute.

## FLASH

### *Lehen Jaunartzeak*

Igandean jaunartzea[k] izan ziren. Aurtengoa[n] sei lagunek egin du[te]: Alaitz Danboriena, Asier Zelaieta, Maitane Altzuguren, Jon Ibarra, Nahia Irigoien eta Oihan[e] Iparragirre.

### *Zaborrontzi berriak*

Azken aldi honetan ku[..] si izanen duzuenez, g[..] re herriko karriketan d[..] ko zaborrontzi berde[..] gain, urdin eta hori ko[..] loreko batzuk ere p[a]ratu dituzte. Bortziriatako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak be[..] re kanpainaren barnean, birziklapena bultzatu nahi du eta horretarako urdin kolorekko edukin-ontziak paratu ditu papera eta kartoiarentzat eta hori kolorekoak plastikozko botilak, latak, esne-ontziak... biltzeko.

### *Los Rosslis taldearen kontzertua*

Maiatzaren 19an, larunbata, Los Rosslis taldeak kontzertu arrakastatsua eskaini zuen Herriko Ostatuan. Ez da Etxalarren egoten den lehenbiziko aldia, bertze bi aldiz ere izana baita. Aldi honetan bere hirugarren lana aurkeztera etorri zen.

HARITZPE JATETXEA
948635235
948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

ETXALARKO HERRIKO OSTATUA
LEHEN JAUNARTZEKO MENU BEREZIA
Langostinoak
Bildots erroa
Jaunartzeko tarta
3.500 pezeta
✆ 948635290

«USOA» NEKAZARI KOOPERATIBA
ETXALAR

IGANTZI

# Berrizaungo auzotarrek gogor segitzen dute protestaldiekin

## Lesakaren aurka jokatuko da Udaberriko Txapelketaren finalerdia

Oskar TXOPERENA

Espero zitekeen bezala, soka luzearekin segitzen du Berrizaungo industri berriaren arazoak. Herriko Etxean alegazioak aurkezteaz gain, kontrako kartelak paratu zituzten Berrizaundarrek auzoko etxe gehienetan, eta protestaldiekin segitzeko asmoa adierazi dute. Orain enpresak, bitartean, arazoa hartzen ari den bidea ikusita, bilera eskatu zion Udalbatzari. Bilera maiatzaren 23an egin zen Herriko Etxean zinegotzi guziekin eta hauxe izan omen zen bere eskaintza: estazio zaharraren inguruan dagoen industri eremura aldatzea proiektua, auzotarrek alegaziorik ez dutela aurkeztuko ziurtatzen bazaie. Horretarako Udalbatzaren bitartekari lana eskatu zuten, bertzela oraingo proiektuarekin azkenera arte segituko dutela adieraziz.



Oskar TXOPERENA

**Berrizaundarrek kartelen bitartez adierazi nahi izan dute industria berria auzoan paratzearen aurka daudela. Argazkian karteletako bat ageri da, eta gibeleko aldean, belar-meta dagoen lekuan, lantegi berriak hartuko lukeen lur eremua.**

### *Frontenis Txapelketa*

Maiatzaren 19an jokatu ziren Biltokik antolatu duen frontenis txapelketaren finalak. Joko izugarri seguruarekin, Aitor eta Mikel Antxordoki anaiak atera ziren garaile Urtzi Loiarte eta Joanes Otxotekoren aurka jokatutako finalean.



### *Aralarko San Migelen bisita*

Maiatzaren 14ean izan genuen Aralarko San Migelen bisita. Eguraldi ederra aprobetxatuz, jende multzo polita bildu zen ekitaldi honetara. Heldu den igandean, berriz, izanen dira jaunartzeak. Egun haundia izanen da Olaia, Iker, Andoni eta Aitorrentzat.

### *Pilota*

Hurrengo bi aste hondarretan jokatuko dira Belatek antolatu duen Udaberriko Txapelketaren finalerdiak. B taldean, Lesaka eta Igantzik elkarren aurka jokatuko dute. Maila apalagoan izanda ere, ea berreskuratzen den denbora batean inguruko herrien arteko partiduek izaten zuten giroa.

Bertzalde, aipatzekoa da Euskalerrian Lourdes Lartzabal Aiestenekoak palaz lortu duen txapela.




MARTIKO
*Gure baserrietako produktuak*
✆948 625016 • Fax 948 625036
Alhaiaga Industrialdea • BERA

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZKUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezes
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 948 627572 • Faxa: 948 637508

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 948630083 BERA

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ✆ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA

## FLASH



### *UEMA Eguna*

Aurten ekainaren 10ean eginen da UEMA Eguna Arbizun (Sakana). Bertze urtetan herriko Euskara Batzordeak egun horretarako autobusa antolatzen zuen, baina aurten Trinidade Egunarekin batera denez, ez da horrela izanen. Halere, UEMA Egunera bere aldetik joan nahi duenak eta bertan bazkaltzera geldtzeko gogoa edo aukera duenak ekainaren 5a baino lehen Herriko Etxean erran beharko du.

ARANTZA

# Larunbatean ailegatuko da herrira presoen aldeko ibilaldia

## Larunbatean, ongietorriaren ondotik, afaria izanen da Zahar-Txokon

**Garbiñe eta Elixabet**

Asteburu honetan, ekainaren 2 eta 3an, Bortzirietako preso eta errepresaliatuen aldeko mendi martxa eginen da. Larunbatean, arratsaldeko 2ak aldera hasiko da martxa Etxalarren eta handik Arantzara ailegatuko dira ilunabarrean. Herrian ongietorria eginen zaie trikitixa eta herriko bertsolariek alaitua. Ondotik afaria izanen da Zahar Txokon. Afal ondoren, Bortzirietako preso ohiek solasaldia emanen dute. Igandean, Arantzan abiatu eta Igantzi, Lesaka eta Beran barna ibiliko da martxa. Martxan parte hartu edo afaltzera agertu nahi duenak Aterpen edo Zuzainean eman behar du izena.



Garaiola: MAIZ

**Zakurrei errabiaren aurkako txertoa ematen aritu zen albaiteroa.**

### *Bordelera ateraldia*

Maiatzaren 19an, herritarrek ateraldia egin zuten Bordeleko Nazioarteko Feria bisitatzera. Tresneria, auto edo bidai berrienak ikusgai zituen feriara 40 bat lagun joan ziren, golzean goiz abiatuta. Bortzirietatik hiru autobus atera ziren egun horretan. Egunpasa egin eta arratsean itzuli ziren.

BERA DESINFECCIONES
Termita eta Polilen kontrako tratamendua
✆ 948630155
BERA



EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA



LESAKA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortzirlaetan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak



PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
✆ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

DONEZTEBE

# Nafarroako Txirrindulari Itzulia ailegatuko da aste hondarrean

## Ekainaren 9 eta 10ean Euskal Herriko eskubaloi txapelketa jokatuko da

**Iipi-etapa**

Afizionatu mailako txirrindulariei zuzendutako Nafarroako Itzulia Malerrekara ailegatuko da aste hondar honetan. Larunbatean, ekainak 2, Lizarran abiatutako etapa Doneztseben akituko da, 160 kilometro osatu ondotik. Leitza aldetik sartuko da, Saldiasko gaina igan eta Doneztebera jautsiko dira (5,15ak aldera). Beintza-Labaienen barrena. Herritik, berriz ere Saldisera joanen dira, itzuli bera eginez, Doneztseben helmugaratzeko, 6,15ak aldera.

Igande goizean, berriz, Doneztseben abiatu eta Iruñera joanen dira, Belaten barna. 129 kilometroko etapa izanen dute igandekoa. Doneztebeko Udalak eta Erreka elkarteak lagundu dute etapa hauen antolaketan. Joan den urtean, profesionalen Euskal Herriko Itzulia izan zen herrian eta aurten, berriz, afizionatuen txanda izanen da.



ARTXIBOA

**Larunbat honetan, Lizarratik datorren etapa Doneztseben akituko da.**

Jakina denez, Erreka elkartea 25. urteurreneko ospakizunetan sartua dabila eta, hasera batean, igande berean Herri Lasterketa egitea pentsatua zuten. Baina Pedro Bañares lehendakariak erran digunez, *«asteburu baterako Nafarroako Itzulia nahikoa zela iruditu zaigu eta ekainaren 24an eginen dugu krosa».*

### *Euskal Herriko eskubaloi txapelketa*

Ez dira hauek Errekak ekainean prestatuko dituen kirol ekitaldi bakarrak. Hurrengo aste hondarrean, ekainaren 9 eta 10ean, Euskal Herriko eskubaloi txapelketa jokatuko da udal kiroldegi eta pilotalekuan. Txapelketa honetan kadete eta gazte mailako Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiako neska eta mutilen selekzioak biltzen dira. Nafarroako kadete mailako nesken selekzioan Errekako jokalariak ere izanen dira. Partidak larunbatean goiz-arratsaldez eta igande goizean jokatuko dira. Mutilen partida guziak Doneztseben izanen dira eta nesken partida batzuk, berriz, Elizondon ere jokatuko dira. Igande arratsaldeko 1,45etan sariak banatuko dira.

Eskubaloi kontuekin segituz, Errekako taldeek denboraldia akitu dute. Urteko gauzarik aipagarrienak, handiek maila galdu dutela eta infantil mailako mutikoek Kopako finalerdietaraino ailegatu zirela izan dira.

FLASH

### *Mendi Abesbatzak*

bere 5. urtebetetzea ospatu zuen joan den larunbatean, elizan egindako kontzertu batekin. Herriko koralarekin batera, Hendaiako Entzun Abesbatza eta Irungo Musika Eskolako Orkesta Gaztea aritu ziren.

### *Beilatokia ireki du Irachek Doneztseben*

Maiatzaren 24an egindako ekitaldianireki zen Doneztseben Irache enpresak izanen duen San Pedro beilatokia. Irache taldearen barnean dagoen Maldaerreka funeraria enpresak ireki du Donamariarako bide ondoan, Ameztia karrikan, dagoen lokala eta Luis Javier Telletxea Pellejero lesakarra izanen da arduraduna. Aurkezpen ekitaldian, Jesus Goldaraz apezak bedeinkazioa eman zion lokalari. Irache taldeko ordezkariekin batera, Felipe Ganboa Arkupeak elkarteko lehendakaria, Malerrekako alkateak eta Cederna-Garalur, Mankomunitatea edo Osasun Zentroko ordezkariak agertu ziren ekitaldira, bertzeak bertze. Lesaka, Leitza eta Beran ere beilatokiak ireki nahi dituzte abudo xamar.



APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

LEGARRA

Legarrea, 9 • ☎ 948 637 050 • LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

ELGORRIAGA

# Bainuetxeko proiektuaren epeak betetzea eskatuko du Udalak

## Urte akabaila arte ezin izanen dira eraikuntza lanak hasi

ttipi-ttapa

Elgorriagako bainuetxea berreraikitzeko asmoarekin lanean hasi zirela urte terdi baino gehiago pasa denean, Jose Migel Galarregi alkateak aitzinetik jarritako epeak bete ditzan eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Horretarako Galarregik zuzenean Madrilen Gobernuaren delegatu lanak betetzen dituen Jose Cruz Perez Lapazaranenganajo du, honek Espainiako Sustapen Ministeritzarekin hitz egin dezan.


Denbora pasatuko da Elgorriagako Bainearioa berriz ere lanean hasi baino lehen.

Elgorriagako proiektu berexi honek legezko pausu guziak eman eta gero, urte bukaerarte lanean hastea galeraziko dien geldialdia somatu du orain.

Bainuetxearen hasierako ideia 1999ko urtarrilean abiatu zen eta urte hartako urrian Gobernuarekin lehenbiziko paper sinaketak egin zituen udalak. Lehenbiziko pausu honen ondotik oinarrizko obra proiektua iazko azaroan onartu zen, 1.025 miloi pezetako aurrekontuarekin. Aurtengo urtarrilaren 4an, Javier Taberna Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritza departamentuko zuzendariak, oniritzia eman zion aurrekontuari. Ondotik gauza bera egin zuen Sustapen Ministeritzak.

Behin betiko proiektua idaztea bertzerik ez zen falta. Eta hemen hasi dira gibeleratzen gauzak, lan hau hartu zuten arkitektuek proiektu guzia irailerako prest egonen dela ziurtatu baitute, ez lehenago. Dena ongi badoa azaroan, 15 hilabete iraunen duten lanak esleituko direla uste dute Elgorriagan. Baina ez dira hor akitzen bainuetxe honen istorioak. Maiatzaren 9an erreka eta ibaietako urak kudeatzen dituen Confederacion Hidrografica del Norte enpresak sortzen ahal diren arriskuen inguruan txostena azaldu baitzion udalari. Txosten honek erakutsi duenez, segurtasun neurriak bermatzeko 30 milioi gostako diren lan gehigarri batzuk egitea beharrezkoa izanen da.

ITUREN

# Trinidade Eguna ekainaren 10ean ospatuko da

Iban ISASI

Ekainaren 10ean urteroko Trinitate Eguna ospatuko da. Erromeria izanen da Iturendik Mendaurko kaxkoan dagoen Trinitate baselizarano. Meza aditzeko aukera izanen da eta ondotik, urtegian Iturengo gazteek bazkaria eta besta antolatua dute. Izena emateko epea ekainaren 8an akituko da ohiko ostatuetan eta aitzinetik 1.000 pezeta utzi behar dira. Arratsaldez, dantzaldia izanen da herriko plazan.

### *Zine emanaldia*

Asteburu bereko ortziralean, ekainaren 8an, arratseko 10,30etan Iturengo plazan edo Aurtizko Kolanea ttikia pilotalekuan (eguraldiaren arabera), Carlos Zabalak eta Eneko Olasagastik zuzendutako «Ba nahi dut» pelikula ikusteko aukera izanen da. Malerrekako Euskara Zerbitzua eta Ibintza taldeak antolatu dute.

TOLDOS BAZTAN
TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...

948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind.•Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK

Ibarrola Mertzeria
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 - Doneztebe
948450463

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

# etxegintza

## GEHIGARRIA

- Argia eta koloreak
- Hipotekak
- Etxeko energia
- Eraikuntzarako asegurunak
- Isolamendua
- Etxeen salerosketa
- Leihoak



# Koloreak, argiaren araberakoak

Josune URROZ
DEKORATZAILEA

Etxe bateko dekorazioan parte hartzen duen argiztapenari buruzko aholku batzuk ematen saiatuko gara atal honetan.
Beti ere, dagoen argiztapenaren araberakoak izanen dira gure begiek ikusiko dituzten koloreak. Gela bateko altzariek, paretek zein oihalek argiztapenaren arabera sentsazio batzuk edo besteak ematen dizkigute.
Etxe guztia argiztatzeko oso garrantzitsua da dauden hiru argi motak konbinatzea: argiztapen orokorra, argiztapen puntuala eta argiztapen anbientala.
Txosten honetan, gela bakoitzak behar duen argiztapen ideala agertzen sahiatuko gara, kontuan harturik aholku hauek orokorrak direla, eta gero pertsona bakoitzaren araberakoa izanen dela gela bakoitzaren dekorazioa, distribuzioa, bizitzeko modua, eta azken finean, gela hori argiztatzeko modua ere.



***Egun guztian ordu gehien pasatzen dugun gela izanik, argiztapen homogeneoa eta argi anbientala konbinatzen saiatuko gara.***

## Egongela

Egun guztian ordu gehien pasatzen dugun gela izanik, argiztapen homogeneoa argi anbientalarekin konbinatzen saiatuko gara. Efektu hau lortzeko lurreko eta sabaiko lanparak erabiliko ditugu. Irakurketarako txoko egokia lortzeko, argiztapen

KOLOKAN
tlf 667717681
DEKORAZIO ESTUDIOA
titulaturiko diseinari eta paisaiista teknikaria
PROIEKTU ETA ERREFORMAK ETXEBIZITZA ETA LOKAL KOMERTZIALETAN
OPARIAK
altzari mexikarrak
lanparak
alfonbrak
koadroak
koltxak
edredoi nordikoak
iturlandeta karrika,3
31780 BERA

Juan Ignacio Oiartzabal
arkitektoa
948 630304
Ipar karrika, 15
BERA

GAZMENDI
eraikuntzak
SAN JUAN KARRIKA • GURE BORDA
SUNBILLA
TFNOAK: 948 450130 - 948 451666
MUGIKORRA: 619 469 784

ETXEBERRIA ZVRGINDEGIA
Tel.: 948 450310 • Etxekoa: 948 580997
Mugikorra: 608. 677 997
ELGORRIAGA

Eskatu aurrekontua loturarik gabe
Juan Luis Otxoteko
PINTOREA
kanpo eta barnealdeak
Bittiria, 26 - 3.B - 31770 LESAKA - 948 63 79 02 - Tel./Fax: 948 62 75 14








**Sukaldean fluoreszente bakarra jartzen badugu erdi-erdian, giro hotza izanen dugu, eta lan egiteko itzal deserosoekin.**

zuena eta erregulatua erabiliko dugu.

## Jangela

Jangelako mahaiak argiztapen uniformea eta itzalik gabekoa izan behar du. Argiztapen hori lortzeko modurik egokiena, mahaiaren gainean argia zintzilikatzea izanen litzateke, eta aldiberean altura erregulatzen den honetakoa. Mahaiak argiztatzerakoan ez da argi alogenoekin argiztatu behar, itzal desegokiak sortzen dituzte eta.

## Sukaldea

Sukaldean fluoreszente bat bakarra jartzen badugu eta erdi-erdian, giro hotza izanen dugu, eta lan egiteko itzal deserosoekin. Argiztapen orokorra lortzeko opakoa ez den pantaila bat jarriko dugu eta modu berean

**Logeletan argiztapen xuabea jarriko dugu, argi puntualak eta nahi izanez gero aplikeak. Idazmahaia edo tokadorean argia jarriz gero, ezker aldean jarriko dugu itzal deserosorik egin ez dezan.**

lanerako mahaiak argi puntual eta alogenoekin argiztatuko ditugu.

## Bainugelak

Bainu geletan argiztapen egokiena argi enpotratu orokorrak eta ispiluetako argi, zuzenduak dira.

## Logelak

Logeletan argiztapen xuabea jarriko dugu, argi puntualak eta nahi izanez gero, aplikeak. Idazmahaia edo tokadorean argia jarriz gero, ezker aldean jarriko dugu itzal deserosorik egin ez dezan.






# Hamar gomendio hipoteka sinatu aitzin

**Hipoteka-kreditua kontratatzeko orduan 10 pausu hauek segitzea gomendatzen du Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak:**

**1.** Banketxeek maileguaren ezaugarri guziak biltzen dituzten informazio orriak jarri behar dituzte bezeroen esku. Ezaugarri hoien artean identifikazioa, epeak, interes tipoak, komisioak, mailegariaren kontu doazen gastuak, aldizkako kuoten balioa, tarifak eta adituaren tasazio balioa.

**2.** Mailegua izenpetu baino lehen, kreditu entitate bat baino gehiago bisitatzea komeni da eta eskaintza desberdinak konparatzea.

**3.** Mailegua eman baino lehen banketxe edo kutxak zure egoera ekonomikoa aztertuko du eta litekeena da betebehar batzuk jartzea, hala nola nomina helbideratzea edo etxebizitzarentzat sute asegurua kontratatzea (ezin du bere konpainiarena ezarri).

**4.** Kontsumitzaileak 10 eguneko epea du eskaintza aztertzeko. Maileguaren kapitalaz informatu behar du eskaintza horrek, baita ordaintze aldiez, ohiko interesez, komisioez, gastu gehigarriez eta kuotaren baten ordainketan gibeleratuz gero gehitzen diren interesez.

**5.** Hipoteketan bi interes tipo daude: finkoa eta aldakorra. Finkoa ez da behinere aldatzen maileguak irauten duen bitartean. Bigarrenak goiti edo beheiti egiten du merkatu tipoen aldaketen arabera.

**6.** Garrantzitsua da hipoteka bat kontratatzeak gastu eta komisio gehigarri batzuk sortu ditzakeela: irekitze komisioa, ikerketa gastuak, dirua eskura emateagatik komisioa, tasazio gastuak, notaritza eta erregistro arantzelak, zergak eta etxearen asegurua izenpetzea.

**7.** Eskaintza bat onartzea erabakiz gero, eskubidea duzu mailegu horren eskritura publikoaren proiektua notarioaren bulegoan aztertzeko, mailegua eman eta hurrengo hiru egunetan bai bederen. Notarioak egiaztatu behar du dena xuxen dagoela.

**8.** Mailegu-poliza izenpetu baldin baduzu eta merkatuko interesak ttikiagoak direla ikusten baduzu alda dezakezu subrogazio bidez edo nobazio bidez.

**9.** Subrogazioa egitea erabakiz gero, notaritza eta erregistro gastu batzuk ordaindu beharko dituzu, eta aitzinetik deusezt atzeko komisio bat, subrogazioaren kasuan baldin badago behintzat.

**10.** Zalantzarik izanez gero kontsumitzaileen elkarte batean eska dezakezu laguntza.



***Lege honen xedea partikularren interesak defendatzea da, eta, horretarako, partehartzaile guztien eginbehar eta ardurak finkatzen ditu.***


BERATARRA ARGIÑAK

DONEZTEBE 670 48 93 37
BERA 617 34 63 78

Leitzako bidea, 66 • 8. blokea 2.C • 31740 DONEZTEBE



# Etxeak zaharberritzea

**Etxebizitza zaharrak berritzeko eskaerak handitu egin dira azken boladan. Egoera txarrean dauden etxeak berritzen edo egokitzen lan aunitz egiten dute inguruko igeltseroek.**

Etxebizitza bat zaharberritzeko baldintza batzuk bete behar dira lehenik. Batetik, etxeak 15 urte baino gehiago beharko ditu izan eta bertzetik obraren aurrekontua milioi erditik goitikoa izan beharko da laguntza baten kasuan, eta milioi batetik goitikoa interes ttikiko mailegu baten kasuan.

Gainera, etxe kolektiboetan, bizilagunen komunitateak aurrekontu guziaren %40a arteko dirulaguntza jaso dezake.

## Aitzinaldeak

Batez ere etxeen aitzinaldeak zaharberritzeko eskaera egiten du jendeak. Eraikuntzaren zati garrantzitsua dira eta lan aunitz egiten ahal dira, garbiketa soil batetik hasi eta moldaketa lan desberdinetaraino. Hala ere, forjaketak eta balkoi moldaketak egitea eskatzen dute gehienbat.

Gauza aunitz hartu behar dira kontuan zaharberritzea hasi baino lehen: arazoa zein den, eraikuntza zer materialekin egina dagoen, noizkoa den, euskarrien egoera… baina zaharberritze lanetan erabiltzen diren materiale gehienak zementuak eta lamina aseptikoak dira.

Jabe batzuk ez dira aitzinaldea egoera onean izateaz arduratzen, eta puskak erortzen hasten direlarik soilik kezkatzen dira. Obrek sortzen dituzten molestiak ebitatzeagatik egiten dute aunitzek, bainan hilabete bat edo biz egiten omen dituzte zaharberritze lanak. ♦

SUMINISTROS YANCI

• Iturgintza eta kalefakzio materialaren salmenta
• Iturgintza instalazioak
• Gas eta gasoil berogailuak
• Erregailuen moldaketa eta mantenimendua
• Moble osagarriak eta bainurako manparak

Zaldubia Poligonoa - IRURITA
Tel.: 948 58 01 09 • 948 45 24 64

JUANTXO SAN MIGUEL
Iturgintza eta Kalefakzioa
☎ 948 45 08 66 - 626 112 415
Elizagibela, 2 - 3,a • 31.740 Doneztebe

Zozaya
FONTANERIA CALEFACCION GAS
Iturgintza
Kalefakzioa
Gasa
Bainurako osagarriak
Alkaiaga industrialdea • Elutxa 3, 17
Lesaka 31789
Tel. 948 631 502 - Fax. 948 630 863

OSKARIZ ANAIAK
ARGIÑAK
MOTA GUZIETAKO ARGIN-LANAK
948 452 255 - 619 406 388 • Maiderrenea etxea • 31700 ELIZONDO

Mikel UBIRIA
eskabazioak
ESKABAZIO ETA GARRAIOAK
M. UBIRIA
619 71 63 22
608 77 96 41
948 637 214
Bittiria plaza, 8
Lesaka

ARANTZAKO ZVRGINDEGIA
Jose Miguel Errandonea
Klase guzietako zurgin lanak
✆ 667 35 88 07
Osiña auzoa ✆ 948 634 068
ARANTZA

# Zein da komeni zaigun energia?



Etxeko berokuntza sistema erabakitzen hasten garenean, merkatuak eskaintzen dituen erregai desberdinetatik bat aukeratzea izanen da gure buruhaustea.
Horretarako badira hainbat faktore kontuan izateko: instalazio gastuak, gehiago edo guttiago kutsatzea, etxe kolektiboetan kalefakzioa erabili behar duen famili kopurua, espazioaren banaketa, ura berotzeko erabilgarria den edo ez.
Hona hemen berokuntza sistema desberdinek eskaintzen dituzten abantaila eta trabak.

## Gas naturala

Erregai erosoa da, erabiltzaileak ez baitu hornitzeaz ez banatzeaz kezkatu behar. Propanoa eta Gasolio C-a baino garestiago da, baina elektrizitatea baino puskaz merkeago. Behin instalatu delarik, giro bera nahiz ur beroa produzitzeko erabil daiteke, baita sukalderako ere.

## Hiri gasa

Desagertzeko puntuan dagoen erregaia da. Gas naturalaren prezio berdintsuan ateratzen da.

ITURRIONDO
zurgindegia
Mota guzietako zurgin-lanak
948 631 430
Zalain industrialdea, 7 • 31780 BERA

Alicia T. Erlanz
BEHAR DITUZUEN
LAN TXIKI
HORIENTZAT
SERVI - LAN
OFIZIALE GUZTIAK
SERVI - LANen
Elizagibela, 5 • DONEZTEBE
Tel. 948456193 - Fax. 948450760

IGELTSU PROIEKTATUA
LOIZATE
J.M Mitxelena
X. Zubieta
948 637 750
689 908 665
BERA
948 634 199
677 559 436

***Energia elektrikoa da garestiena. Erregai osagarri gisa ere erabiltzen ahal da bertze erregai alternatiboekin batera erabiltzeko, bero bonbak edo bertze gisako sistemak.***

### Propanoa

Gordetzeko orduan alternatiba desberdinak daude. Ontzi ttikietan gordetzen ahal da balkoian edo terrazan, edo kanpoko etxolan sartutako bonbona handietan. Gas naturala baino bero-potentzia handiagoa du, eta bere prezioa gas naturala baino ttikixeagoa da, instalazio eta gordetzearen arabera.

### Gasoleo C-a

Erregaietan merkeena da. Hala ere ez du sukaldeko energiaren arazoa moldatzen, ezta ur beroarena ere. Hoietarako bertze erregai bat sartu beharko da, gasa edo elektrizitatea. Etxean tokia egiterako orduan arazo franko ematen ditu, baita erretzerakoan ateratzen diren gasek ere.

### Erregai tradizionalak

Orain dela bi belaunaldi arte ohikoa zen erregaiaz ari gara, ikatza eta egurra, alegia. Erregulatzeko zaila da eta arrisku handikoak ez baitago zehazki kontrolatzerik. Gordetzeko ere toki aunitz behar da, eta hondakinen garbiketak ere lan dexente ematen du. Bertzalde, egurraren prezioa ez da finkoa eta ikatza garestia da arras.

### Energia elektrikoa

Garestiena da. Erregai osagarri gisa ere erabiltzen ahal da bertze energia alternatiboekin batera erabiltzeko, bero bonbak edo bertze gisako sistemak. ♦


Jose Canabal
Instalazio elektrikoak orokorrean
ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAK
☎ 666 57 58 99 - 948 637 541
IGANTZI

HARRI-LAN SL
Harri zizelkariak
Harri landuak, paretak apaintzeko harriak, harlauzak...
Oharriz auzoa
☎ 948 452 143 • Fax. 948 452 452
31.795 LEKAROZ



Hergóm
BEROGAILUAK, SUKALDEAK, BEHEKO SUAK...
Almaco Baztan
ETXEGINTZA ETA SANEAMENDU MATERIALAK
✆ 948 580 104 / 948 580 366
ELIZONDO





Astiz anaiak
Zurgindegia
Zurgin lanak orokorrean
Ateak, leiho eta tarimak
Elbarren 84, 31880 Leitza
948 610 606 • 948 610 285

# Eraikuntza akatsendako aseguruak

Iazko maiatzean "Eraikuntzaren Ordenazioaren Legea" indarrean jarri zen Espainian. Partikularren interesak defendatu nahirik, eraikuntza prozesuan parte hartzen duten guztien betebeharrak eta ardurak zehazten ditu lege honek. Promotorea da lanak aurrera atera eta finantziatzen dituena. Legeak dioena betetzeko lehenik eraiki nahi duen eremuan eraikitzeko eskubidea izan behar du. Proiektua eginen duenari, proiektu hau erredaktatzeko behar duen dokumentazioa eman behar dio. Baimen lizentziak lortu behar ditu eta eraikuntza lanaren hartze-agiria izenpetu behar du. Promotoreak edo eraikitzaileak bere izenean bi aseguru egin behar dituzte: lehena hiru urtekoa, eraikuntzaren elementuak eta instalazioetan sortzen ahal diren akatsak estaltzeko eta bertzea hamar urtekoa, eraikuntzaren egitura aseguratzeko. Promotoreak eraikina erosleei ematen dienetik egituran gerta daitezkeen kalte guztiei erantzun behar die.

***Promotoreek edo eraikitzaleek bere izenean bi aseguru egin behar dituzte: lehena hiru urtekoa, eraikuntzaren elementuak eta instalazioetan sortzen ahal diren akatsak estaltzeko eta bertzea hamar urtekoa, eraikuntzaren egitura aseguratzeko.***

## Hamar urteko aseguruak

Aseguru etxeak hamar urtean zehar obrak egin zirenean zuten balorearen %100a bermatu behar du. Poliza honek Eraikuntzaren Legeak dituen betebeharrei osotasunean erantzun behar die. Eraikinak egituran akatsak izanez gero, aseguruak erantzun beharko luke eraikuntzari eragin zaizkion kalte materialak bere gain hartuz. Era berean, bertze bermeak ere eskatu daitezke, hala nola, teilatuaren iragazkaitasuna egokia iza-

HUR-BERRI SL
ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
ELEKTRIZITATEA
☎ 948 452 449 - 616 791 071 • Fax: 948 452 452
Oharriz - 31795 LEKAROZ

LEIZA ANAIAK
ERAIKUNTZAK
Patxi Arrazola, 14 • 1.A
Tel. 948 610 934 / 948 610 927
LEITZA

IRIBARREN
ZURGINDEGIA
ZURGINDEGI OROKORRA
Leiho, ate, zola...
948 635 071
Antsolokueta 28, behea
ETXALAR

TXARAGORRI
iturgintza
☎ 649 853 440
948 610 749
Elbarren, 56 (Martikonea)
31880 LEITZA



***Eraikinak egitura akatsak izanez gero, aseguruak erantzun beharko luke eraikuntzan izandako kalte materialak bere gain hartuz.***

tea edo jadanik bertan zeuden ondasunek kalteak izan badituzte hauen konponketak ordaintzea. Aseguru etxeek, urtero, aseguraturiko kopuna automatikoki handitu dezakete hala eskatuz gero. Poliza hauek etxea bota eta obra hondakinak kentzearen gastuak kontuan hartzen dituzte. Nahi izanez gero aseguru hauek beste polizekin osatu daitezke.

Aseguru hau obrak hasterakoan bertan kontratatu behar da. Behin eraikitzeko epea akaututa teknikari bat bidaliko dute eta orduan sartzen da indarrean asegurua. ♦


AROZTEGI METALIKOA

S. Odriozola - B. Huici

Tel.: 948 63 12 44

Alkaiaga Industrialdea • Elutxa kalea • Pab. 3/18
31789 LESAKA

MÁRMOLES AMEZTI GRANITOS

Marmolak eta granitoak

- Sukalde eta komuneko entzimerak
- Granitoan xukaderak
- Hileta artea
- Hilarriak

31740 ORONOZ MUGAIRI
tel. 948 592 325 - fax. 948 592 295



BERABI agentzia

ERA GUZIETAKO ASEGURUAK GESTIONATZEN DITUGU

Alkaiaga industrialdea
BERABI TAILERRA
tel. 948 630 601
fax. 948 630 805

winterthur

ARIN ZERBITZUAK

GESTORIA • ASEGUROAK

Parrokia 21 • DONEZTEBE
Tel-Fax: 948 450 266

MERYT Materialak

BERAN ERAIKUNTZAREN BILTEGI OROKORRA

Ubela industrialdea
☎ 948 631 201 - BERA

Jagoba Irisarri Elizagoien
ITURGINTZA LANAK
ORMIGOI ZULAKETA
659 401 555
948 635 182
Lakatenekoborda • ETXALAR

ETXEPARE ANAIAK
eraikuntzak
Zaharberritzeak
948 637 431
Bittiria, 22 • 31.770 LESAKA

Iñaki OLAIZOLA
Elektrizitatea orokorrean
Muntaia elektrikoak
Alarmak
Portero automatikoak
948 637 405 - 670 417 499
Bittiria 39 - LESAKA

# Egurrezko estalkientzat isolamendu ezinhobea

Cesar BARANDIARAN
BIOERAIKUNTZA TEKNIKOA / ALKAIN

Teknika honen bidez egurrezko egitura duten hemengo teilatu tradizionalentzat isolamendu estalki perfektuak egiten dira. Gure betiko teilatuari modu naturalean "hats hartzera" uzten dion eraikuntza sistema da hau. "Zurak agerian" sistema zaharrari segituz, zuren gainean gure gustoko estalkia jarriko dugu (oholak, igeltsu plakak…).

Hori da guk ikusiko duguna, bainan hementxe dago teknika honen sekretua. Plaka honen gainetik izkutuan geldituko da guk jarriko dugun isolamendua, eta horixe da isolatze lana egiten duena. Horretarako zelulosa edo fibra naturalez egindako isolagarri desberdinak erabiliko ditugu, zernahi gisako obretara egokitzea baimentzen baitigute, nahiz obra berria izan nahiz eraberritzea.

- Plaka desberdinak (gutex, kortxoa, celenit...)
- Fibra erroiloetan (linua, kalamua, artilea…)
- Proiektatuak (climacell zelulosa, kortxoa pikorretan, vermiculita…)

***Sistema honekin gure etxeari modu naturalean hats hartzen utziko diogu, kondentsazio arazo guziak saihestuz, eta beraz, egurrarentzat horren kaltegarriak diren hezetasun aldaketak saihestuz.***

## Hezetasunaren kontra eraginkorrena

Isolamendu honen gainetik gure estalkia teila-azpiko babes batekin estalko dugu (Gutex multiplex, Txuek, Fel'x…) eta azkenik teila rastrel bikoitzean a-


BEXUEN
25 metro goratzen den garabia
Kabrestantea urrutiko aginteaekin
Tel: 670 974 025
667 418 661



garraio - eskabazioak
Tel: 670 974025

zure herriko berriak egunero
ttipi-ttapa
telebista



Linu naturalezko isolamendua (goitian) eta isolamendu proiektatuak (beheitian).




eztatu eta urez erraxago hustzeko.
Sistema honekin gure etxeari modu naturalean aireztatzen utziko diogu, kondentsazio arazo guziak saihestuz, eta beraz, egurrarentzat horren kaltegarriak diren hezetasun aldaketak ere baztertuz. Zelulosek hezetasuna xurgatu eta botatzeko gaitasuna dute, hezetasun groa etengabe orekatuz. Bertzalde, zelulosazko isolamendua isolamendu tradizionalak baino hagitzez eraginkorragoa da udako beroaren aitzinean, udan estalkien gehiegizko berokuntza saihestuz.
Isolamendu sistema hau aukeratuz gero zure etxekoek, zure sakelak eta naturak berak ere eskertuko dizuten estalkia izanen duzu. ✦




OKILA
zurgindegia
Tarimak, ateak, leihoak, eskailerak...
Obretako lanak orokorrean
Lander Sein - Mikel Arburua
Piedade gaina z/g 31790 Igantzi ☎ 948 637 249

saneamientos
Gare
• Gas instalazioak • Berogailu instalazioak •
• Komuneko altzariak •
Kanttonberri 10, BERA
garelarrabia.es
tel: 948 631 107
sakelakoa: 608 976 034

**A D O S**

*Julian Izura Nuin*

Telefonoak: 948 45 | 84 • 607 978 654 • e-mail: [illegible]

Pyrroka 9, bajera • **DONEZTEBE**

**Bera.**

• Errekalde gainean 60 m²ko pisua salgai. Berritzeko.

• 85 m²ko pisua salgai Legia karrikan, bizitzen jartzeko prest.

• 120 m²ko pisua zaharberritzeko, erreforma osoa behar du. 2 apartamendu egiteko aukera.

• Eztegaran 40 m²ko bajera salgai.

• Baserria salgai. Lizuniaga aldera, lur-eremuekin.

• Etxe elkar-atxikia lur-eremuarekin salgai.

• 1.300 m²ko nabe-pabiloia salgai.

• Postetxe plazan garajeak salgai, aukerakoak.

• Endarlatsan etxe bat zaharberritzeko salgai.

**Lesaka.**

• Etxe elkar-atxikiak, egiten hasiak direnak.

**2. FASEA.**

• Nabe-pabiloia, 350 m²koa, errentan emateko.

• Bajera bat salgai. Errotale ondoan.

• Terrenoa, hiru etxe egiteko, salgai.

• Baserria 50.000 m²ko lur-eremuarekin salgai, bu etxebizitza egiteko modukoa.

•Herrian etxea bat salgai. Erreforma behar du.

**Etxalar.**

• Herriko etxea salgai, lur-eremuarekin.

• Lur-eremua, bi etxe egiteko, herrian bertan salgai.

• Baserri baten gardara, lur puska batekin, salgai.

• Etxe berria salgai, lur-eremuarekin, bizitzen jartzeko prest.

• Baserri berria lur-eremuarekin salgai.

• Borda bat lur-eremuarekin.

• Herrian etxe bat salgai.

**Arantza.**

• Lur-eremua etxeak eraikitzeko salgai.

• Pisua salgai. Merke-merke.

• Soroa salgai, etxea eraikitzeko aukerarekin.

**Igantzi.**

• Baserria salgai, lur-eremuarekin edo gabe.

**Sunbilla.**

• Herriko etxe bat salgai, 100 m², hiru solairu, zoragarria.

• 57 m²ko bajera salgai, erabat prestatua.

• Baserria salgai, beja lur-eremuarekin.

• Etxe elkar-atxikiak, librean edo babes ofizialekoak, salgai.

**Doneztebe.**

• Bajera salgai, 60 m², erabat prestatua. Elgorriaga aldera.

• Donamariako bidean, errepide ondoan, zoken bajera, 100 m².

• 5.000 m² lur salgai. 2 etxe egiteko. Toki arras polita.

• Bajera batzuk salgai, herrian bertan.

• Herri inguruan ostatua eta etxebizitza, errentan emateko.

• Bajerak errentan emateko, herrian bertan. Ongi kokatuak. Negozioa jartzeko.

• Frontoi zahar ondoan 200 m²ko bajera.

• Aparan. 300 m²ko nabe pabiloia errentan, zoragarria. Bertze bat 200 m²koa salgai.

• Aparan. 75 m²ko bi nabe pabiloi salgai edo errentan.

• Pisua salgai, herrian bertan.

• Pisua salgai herrian bertan, zaharberritzeko.

**Ituren.**

• Lur-eremu eraikigarria salgai.

• Borda prestatua, ura, argia, ailegabidea.

• Borda salgai.

• Lur-eremuak salgai, landetan, eraikitzeko.

• Lur-eremu eraikigarria salgai. 4 milioi pta.

**Zubieta.**

• Lur-eremu bat dohainik emanen da bajera baten truke.

**Donamaria.**

• Lur-izati eraikigarriak, 340 m²koak.

• Arras ongi dagoen txaleta salgai, lur-eremu batekin, Izugarriko bistak.

• Baserria salgai, lur-eremu batekin.

• Borda bat errentan emateko.

**Igurin.**

• Lur-eremu parea salgai, eraikigarriak. Merke.

**Gaztelu.**

• Lur-eremu eraikigarria salgai, 3.000 m²koa.

**Urrotz.**

• Baserri zaharberritua lur-eremuarekin.

**Beintza.**

• Lur-eremuak. Herritik hurbil.

**Labaien.**

• Lur-eremu eraikigarria, ongi kokatua.

**Legasa.**

• Lur-eremua salgai, eraikigarria.

• Pisu parea salgai.

**Mugairi.**

• Pisua salgai.

• Partzela eraikigarriak salgai.

• Egiten ari diren pisuak salgai.

**Elgorriaga.**

• Lur-eremu eraikigarria salgai, zelai-zelaia.

• Borda lur-eremuarekin salgai.

**Saldias.**

• Baserria salgai, lur-eremuarekin.

**Iruña, Irun eta Donostian,**

• Pisuak erosten-saltzen ditugu.

**Irurita.**

• Lur-eremua salgai, etxe bat egiteko. 1.000 m², zelaia.

• 7.000 m²ko belagia salgai.

• Etxe berria salgai.

**Lekaroz.**

• 1.500 m²tako lur-eremua eraikigarria salgai.

**Elizondo.**

• Pisu arras polita Santiago karrikan. 120 m², hiru aldetara ematen du.

• Pisua salgai, ia berria, 90 m². Ongi dago.

• Pisu berria bajerarekin herrian bertan.

• 5 pisu kartetan salgai.

**Erratzu.**

• Borda batzuk salgai.

• Pisua errentan emateko.

**Otsondo.**

• Baserria salgai, inguru zoragarrian.

**Arizkun.**

• Lur-eremu eraikigarria salgai.

**Gartzain.**

• Lur-eremu eraikigarria salgai.

**BAZTAN-BIDASOA.**

• Eskaera handia izateagatik behar ditugu: pisuak, baserriak, etxeak, lur-eremuak, errotak...

# Etxeak salerosteko baldintzak



**Julen IZURA**
Higiezinen kudeatzailea

Etxe, pisu, bajera, garaje edo industri eraikinen salerosketaren eskriturak egiterakoan baldintza batzuk bete behar dira. Hona horien zerrenda:

- Jabetzaren eskritura originala, saltzen den ondasunaren titulartasuna frogatzeko.

- Jabetzaren erregistroaren agiri sinplea, etxebizitza horren gaineko zergen egoera ikusteko.

- Lursailaren zedula; etxebizitzaren kokapenaren krokisa agertzen den dokumentua, poligono eta partzelaz osatzen da, udal-zergen ordainagirian agertzen direla.

- Bizigarritasun zedula; argiaren eta gasaren kontratuaren titulartasuna aldatzeko beharrezkoa, baita Nafarroako Gobernuko etxebizitza departamentuaren laguntza edota subentzioak jasotzeko. Garaje, lokal komertzial eta bajeren kasuan ez da eskatzen dokumentu hau.

- Komunitateko gastuen ordainketa egunean dauden agiria, administrariak edo bizilagunen komunitateko presidenteak sinatua. Faltsua izatekotan ardura guzia sinatzailearena da. Agiri hau aurkezten ez bada erosleak hartzen du bere gain komunitatearekin bizilagunak ordurarte izan zezakeen zorra.

- Udal kontribuzioaren azken ordainagiria.

## Salerosketaren balioa

### 1.- Zergak

- Ondasun higiezinaren salerosketan aplikatu beharreko zerga: ondasun higiezin baten gatik haziendari ordaindu behar zaion dirua da. Babes Ofizialeko Etxebizitzetan ez, hauek zergarik gabe saldu baitaitezke.

- Konstruktoreari erosketa zuzena eta ondotik egiten den erosketaren artean bereizi behar da.

...)- Erosketa berria, zenean ...onstruktoreari.

- %7ko BEZa etxebizi...tzan, eta horrekin batera ...jera edo garajea erosten ...ada hauei ere %7ko zerga ...plikatzen zaie.

- %16ko BEZa garaje, ...kal edo industri nabeetan.

3- Zernahi ondoko eroske...ta:

- Bigarren eskutik eros...ten den zernahi ondasun ...higezinek ez du BEZik, ITPa ...ondare eskualdaketa zerga) ...baizik. Etxebizitzen kasuan bi ...aukera daude, eskrituran ...agertzen den kantitatea, kon...tuan hartuz foru haziendak ...kantitate horren errebisioa ...egiteko aukera duela eskritu...raren sinadura egin eta ondo...ko 5 urteetan. Normalki %6a ...izaten da. %5a, berriz, ondoko ...baldintzak betetzen badira: 3 ...senide baino gehiago izatea. ...Ihern berean bertze eskritu...radun etxerik ez izatea. Ohi...ko etxebizitza bezala erabil...tzea. Etxebizitzaren balioa 30 ...milioi baino ttikiagoa izatea.

Lokal, garaje edo industri nabeen kasuan %6a izaten da.

**2- Erregistro gastuak:**

Salerosketa udal jabetzaren erregistroan agertu dadin beharrezko gastuak. Garrantzitsua da hau, bertzenaz jabetza hori aitzineko titularraren izenean egonen litzateke, eta beraz, honek berriz ere saltzerik izanen luke nahi izanez gero. Gastu hoiek erregistratzaileak kobratzen ditu.

**3- Notario gastuak:**

Salerosketa eskritura publikoaren erredakzio gastuak, notario batek egina.

**4- Kudeaketa gastuak:**

Haziendaren eta erregistroaren aitzinean tramite guzi hauek kudeatzea. Erosleak berak, gestoria batek edo notaritzak egin ditzake.

***Garrantzitsua da salerosketa udal jabetzaren erregistroan agertzea, bertzenaz jabetza hori aitzineko titularraren izenean egonen litzateke, eta beraz, honek berriz ere saltzerik izanen luke.***

## Adibide praktikoak

1-Konstruktoreari erositako etxebizitza (prezioa 20 milioi pezeta):
- BEZ zerga (%7): 1.400.000 pta.
- Notaritza: 57.000 pta.
- Erregistroa: 30.000 pta.
- Gestoria: 20.000 pta.
- Guztira: 21.507.000 pta.

2- 2. eskuko etxebizitza, 3 senide baino guttiagoko familiak erosia (20 milioi pta):
- ITP zerga (%6a): 1.200.000 pta.
- Notaritza: 57.000 pta.
- Erregistroa: 30.000 pta.
- Gestoria: 20.000 pta.

Denetara: 21.307.000 pta.

3- Pabilioi industriala edo bajera, konstruktoreari erosia (30 milioi pta):
- BEZ (%16): 1.800.000 pta.
- Notaritza: 67.000 pta.
- Erregistroa: 34.000 pta.
- Gestoria: 20.000 pta.

Denetara: 31.931.000 pta.

Tramite hauen kudeaketarako gomendagarria da higiezinen kudeatzaile bat kontratatzea. Ondasun higiezinaren salerosketatik hasi eta erregistroan eskrituraren tramitazioa egiterarte, segurtasuna, diskrekzioa eta eraginkortasuna bermatuz. ♦


SASOI

Leku-Eder, 4 / 1.D • Tel.: 948 45 15 96
31791 SUNBILLA (Nafarroa)

ESKABAZIO ETA GARRAIOAK

Telefonoa:
667 424 635









- LUR MUGITZEAK
- LUR ZANPATZEAK
- LUR BERDINKETAK
- URBANIZAZIOAK
- KANALIZAZIOAK
- GARRAIOAK

# Leiho on bat etxean babesturik sentitzeko



**Richard ALTZUGUREN**
BETIKO

BETIKO, PVC eta aluminioarekin lan egiten duen enpresa da, etxeetako isolamendua teknikoki nahiz estetikoki hoberena izan dadin gogoz saiatzen dena. Horretarako enpresak fabrikazio eta muntaia sistema aurreratuenak ditu, kalitaterik hobereneko lehengaiarekin lan egiten duela ahantzi gabe.

**Zer diferentzia dago PVC eta aluminioaren artean?**

Arras materiale diferenteak dira zeren aluminioa metala da eta PVCa plastiko gogortua. PVCa isolatzeko hobea da eta kolpeak hobeki eusten ditu. Horregatik asmatu da zubi termikoaren haustura duen aluminiozko leihoa, aluminiozko leiho normalak baino isolamendu hobea duelako. Leihoaren kanpoko aldea eta barnekoa kautxo sintetiko baten bidez bereizten du, horrela hotza eta beroari oztopo gehiago jarriz. Hala ere guk PVCa aluminioa baino gehiago lantzen dugu, isolamendu, hermetikotasun eta iraupen gehiago bermatzen duelako.

**Kalitatea eta prezioa parean daude?**

Bai. Guk kalitate handiko materialeekin lan egiten dugu. Gure lehengaiek, Aenor eta Deceuninck, eskatutako kalitate arau guziak betetzen dituzte gure bezeroei eskaintzen diegun 15 urteko garantiarekin.

Gure lehengai ia guzia Belgika eta Alemaniatik dator, esperientzia eta kalitaterik gehien duten tokitik hain zuzen.

**Non egiten duzue lan gehien?**

Batez ere eskualde honetan





tana Gipuzkoan ere doente, hango prezioak puskaz garestiagoak izanik jendeak aunitz deitzen baiti-gu. Inguru honetan leiho gehienak haritz edo gaztain egurraren imitazioa dira, baina kostaldean txuriarekin lan egiten dugu gehiago.

**Inguru honetan leiho gehienak haritz edo gaztain egurraren imitazioa dira, baina kostaldean txuriarekin lan egiten dugu gehiago.**

**Zein zerbitzu eskaintzen diezue zuen bezeroei?**

Zerbitzu mota guziak, ahol-ku ematetik diseinuetara, estudioak... Bi lan mota berezten dugu, berrikuntzak eta obra berriak. Lehen kasuan guk leihoak egin, zaharrak kendu eta berriak jartzen dizkiogu ahalik eta denbora tarte ttikienean. Pisu, txalet, komertzio edo industria berrietan, berriz, leihoak egin eta jarri baino lehen premarkoa jartzen dugu.

**Bezeroek onartzen dituzte aholkuak?**

Normalki gure bezeroek badute idea ttiki bat, gero gu etxera edo obrara joan eta gure iritzia ematen dugu irtenbide hoberena emateko (arazoa termikoa, akustikoa, estetikoa, hermetikoa den arabera).

Normalki hemengo jendeak kalitatea bilatzen du bertze gauzen gainetik, eta hori arras garrantzitsua da.

**Leiho on batek kristal egoki baten laguntza behar al du?**

Hala da, denak elkarrekin joan behar du, nahitaezkoa da emaitza ona izateko. Funtsezko hiru baldintza daude, material ona, fabrikazio ona eta instalazio egokia. Azken hau garrantzitsua da, ez baita deus egiten gaizki jarritako leiho on batekin. Beraz, hiru pausu hoiek elkarren eskutik joan behar dute. Batek huts egiten badu produktuaren emaitza ez litzateke zuzena. ♦

ERAIKUNTZA MAKINA ETA ZERBITZUEN ALOKAIRUA
DONEZTEBE
• Garbiketak hondar-zorrotadaren bidez
• Materialen garraioa
• Mailu, elektrizidade-sorgailuak, andamio eta konpresorak
Leitzako bidea • ☎ 948 451793-689 702694 • DONEZTEBE

GONZALO FERNANDEZ LAMANA eta A. T. S. CV.
Injineru tekniko industriala
• Bulego teknikoa: proiektuak, obra zuzendaritzak, etab...
• Instalazio elektrikoa
• Etxeko eta industriako elektrizitatea
• Enpresen mantenimendua, etab...
Elizagibela, 5 • Tel-Fax: 948 450760 • DONEZTEBE

CIABAR
ERAIKUNTZAK
Babes Ofizialeko 2. fasea
12 bizitza Elizondon
Braulio Iriarte karrikan
CIAURRIZ IRAIZOZ PROMOZIOAK
LOKAL KOMERTZIALAK SALGAI
Santiago 55, behea • ELIZONDO
948 580 452

TXARUTA, S.L.
Iturgintza
Kalefakzioa
Gasa
948 45 17 63 - 659 77 00 15
Gaztelu


ALMACENES
ETXANIZ SA
Lesakako
Iturria anaiak
• Bainuak
• Griferiak
• Sukaldeak
• Mobleak
• Iturgintza
• Manparak
• Kalefakzioak
• Hidromasajes
• Gasa-gasoila
• Osagarriak
ERAKUSKETA
Juan Arana, 1
Tfnoa. 943 61 17 67
Fax: 943 61 44 64
IRUN
BILTEGIAK
Juan Arana, 3


LEIHO ETA ATEAK
LEIHATE
GAZTAÑAGA
HERMANOS, S.L.
IRUN
PINAR Karrika, 2 - behea
Tfnoa: 943 61 41 56
DONOSTIA
MAESTRO SANTIESTEBAN
karrika (Irungo plaza)
Tfnoa: 943 46 96 22
BARNEALDEEN BERRITZEA:
• Barneko ateak
• Ate blindatuak
• Zolak: Tarima rastrelatuak
eta flotanteak
P.V.C. eta hotz-beroaz
isolatzen duen
aluminiozko leihoak
Armairu enpotratuak
GAZTAÑAGA Hnos S.L.
LEIHATE

GOIZUETA

# Saneamendu eta ur-hornidura lanak ekainean hasiko dira

## Azpiroz-Saralegik hartutako lan hauek 31 milioi pezetako aurrekontua dute

Esteban AROTZENA

Zabala eta Goikoetxea eraikuntza enpresatik jasotako informazioaren arabera, herriaren puska handi bat zeharkatuko duen saneamendu eta ur-horniduraren obrak ekainean hasiko dira. Lan hauek, Azpiroz-Saralegin eman zizkion bere garaian, baina honek hasieran aipatutako Goizuetako enpresa honi azpikontratatu dizkio. Egia esan, hasi ez ezik bukatuak ere izan beharzuten aspaldi xamar lanak, gauzak bere onetik joan baldin baziren behintzat. Dena den, sortutako arazoak gainditu dira, eta esan bezala, obrak hastear daude.



Arotzena

**Zeharbidearen lanak bukatu baino lehen hasiko dira saneamendu eta ur-hornidurarenak.**

Aurrekontua, guztira ia 31 milioi pezetakoa da. Hauetatik 15.137.200 pezeta saneamenduarentzat izanen dira, eta gainerakoa, 15.647.979 pezeta ur-hornidura eta euri urak biltzeko sareetan. Sare berri honen nondik norakoa aipatuz esan, Goiko Landa aldez alde zeharkatuko duela. Hortik, Xardearen etxe aurretik barna plazara sartuko da, eta hau igarotakoan, Fermin Antonio Apezetxea kalera, Peronean barna. Esan beharrekoa da, depuradora martxan dagoenetik saneamendu sarea osatzea arrunt garrantzitsutzat jotzen zuela Udalak. Aipatutako bide hau egiten duenean beteta geldituko da helburua.

Diru kopuru txikiagokoa baldin bada ere, 2.266.200 pezetako aurrekontua, interes handiko lana dela inguruko bizilagunentzat batez ere, Infantatik Goiz Argi alderako kalearen zolaberritzea. Hain zuzen, eta daukan egoera penagarriarengatik ekingo omen diote aurrena Zabala eta Goikoetxeakoek, enpresa honen esku baitago obra hau ere.

ARESO

# San Migelera mendi ibilaldia antolatu zuen Larrea elkarteak

## Hemezortzi lagunek egin zuten ibilbidea

Juana Mari SAIZAR

San Migelera mendiko ibilaldia antolatu zuen Larrea elkarteak maiatzaren 13an. Hemezortzi lagun abiatu ziren eta bat izan ezik, denak allegatu ziren. Goizeko 7etan atera, Albiasu herrian gosaldu eta eguerdiko 1etan ailegatu ziren Aralarrera. Taldeko mendizale zaharrena, 67 urteko Manuel Alustiza eta gazteena, 12 urteko Xabi Alustiza ziren. Autoetan elkartera bueltatu eta bazkari batekin ospatu zuten. Ekainaren 17an, Goizuetara beste ibilaldi bat prestatu dute.

### *Leitzaldeko Eskolarteko bertso paper lehiaketa*

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen artean Itxaso Onsalo aresoarra saritua suertatu zen Leitzaldeko Eskolarteko bertso paper lehiaketan. Aipamen berezia jaso zuen Itxasok eta maiatzaren 15ean bere bertsoak kantatu zituen Leitzan.



Juana Mari Saizar

**Maiatzaren 20an ospatu zuten lehen jaunartzea herriko bost umek: Gorka, Imanol, Zuriñe, Lorea eta Irantzu. Zorionak!**

LEITZA

# Sarriopapel lantegiko lan egoerak moldatu gabe segitzen du

## Hilabetea pasatu da greba hasi zenetik eta ez da aurrerapausorik

Joseba AZPIROZ

Hilabetea pasatu da Sarriopapeleko langileek grebari ekin ziotenetik eta, momentuz, arazoari ez zaio bukaerarik ikusten. Grebaz gain, bestelako ekimenak ere egiten ari dira langileak. Maiatzaren 16an Nafarroako Parlamentuan izan ziren beraien eskaerak aurkezten eta 18an Lan Departamenduaren aurrean kontzentrazioa egin zuten. Maiatzaren 24an lantegiko zuzendaritzak eta langileek Iruñeko Lan Departamenduan egin zuten bilera *«antzua»* izan zela adierazi zuen Enpresa Batzordeak: *«Emaitza onik ekarri ez duen lehen bilera izan da. Enpresak jarrera itxia erakutsi du greba hasi zenetik»*.

Leitzako udalbatzak ere beraien elkartasuna adierazi die Sarriopapeleko langileei. Goizero, lantoki sarreran biltzen dira eta, osagarri gisa, astearte eta ostiraletan batzarrak eta manifestazioak egiten dituzte Leitzan. Joan den astearteán, herriko komertzioek ere langileekin bat egin zuten eta bi orduz dendak itxi egin zituzten.



Joseba AZPIROZ

**Maiatzaren 19an egindako batzarrean, Udalbatzak EH eta EAko zinegotzien botoekin «Euskal Naziotasuna aitortzeko agiria eskatu eta igortzeari buruzko udal araudia» onartu zuen. Udalbiltzatik bete beharreko agiriak jaso bezain laster, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta bete beharreko baldintzen berri emanen dela adierazi zuten. Batzarra bukatu ondoren bi dantzarik Aurreskua dantzatu zioten Ikurriñari, bertaratutako herritar askoren txaloak jasoz.**

### Ibilgailuen gaineko zerga

26,4 milioi jasoko ditu aurten Leitzako Udalak, Ibilgailuen gaineko udal zergarengatik. Denetara, 2.141 ibilgailu daude herrian zentsatuak eta honela banatzen dira: Ziklomotore-Motozikleta, 101; Zerbitzu Publikoa, 11; Turismoa, 1.622; Traktorea, 64; Nekazal Tresneria, 90; Ezinduen ibilgailuak, 12; Kamioia, 199; Atoia (erremolkea), 42. Ibilgailuen gaineko zerga hau ordaintzeko epea ekainaren 30ean bukatuko da.

## FLASH

### *Udal igerilekua ez du inork hart*

Aurten ere ez da in aurkeztu igerilekuare gestioa eramatek lehiaketarako ezarrit ko epean. Aurreko u tean bezala Udalak en presa bateri diru kopu jakin bat ordaindukode kudeaketarengatik eta diru sarrerak Udalaren tzat izanen dira.

### *Urbanizazio lanak*

Fresneda enpresak eg nen du Leitzelarrea kla mioko kruzetik trenbi dearen zubia bitarteko kalearen urbanizazioa 46,4 milioien truke, au keztutako bost enpre setatik eskaintza hobe rena egin ondoren.

### *Pilotalekuko proiektuaren*

erredakzioa Carlos Sa gatibeltzak eginen du egindako eskeintzan puntu gehiago atera d tuelako.

### *Posta-bulegoa*

lehenago Osane ga masioa egondako lok lean jarriko dute laste (Elgoien kalea, 3).

### *Arkiskil eta Errekako lanak*

Arkiskil eta Erreka a zoetako ur-hornidura ren obraren enkantean parte hartzeko epea ekainaren 11ko eguer dian bukatuko da. Es kaintza hoberena eg ten duen enpresak hil beteko epea izanen d obra hasteko eta hiru hilabete bukatzeko. Aur kontua 17 milioikoa da.




BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

BULDAIN
agentzia inmobiliarioa
Amazabal 37 (eskola ondoan) • LEITZA (Nafarroa)
✆ 948 510534 / 649 476615

BAZTAN

# Igerilekuak ekainaren 15ean irekiko dituzte

Lekarozkoan 11 lanpostu eskaintzen dira

RAKEL GOÑI

Elizondoko igerilekua ekainaren 15ean irekiko da. Iaz bezala Jose Luis Dussaubat izanen da igerilekuaren mantenuaz eta garbiketaz arduratuko dena. Aurtengo abonoen prezioak ondoko hauek dira:

-Helduak (16 urtetik gorakoak), arrunta 6.000 pezeta, familia ugaria 4.500 pezeta, jubilatuak 3.000 pezeta eta baztandar ez direnentzat 7500 pezeta.

-Gaztetxoak (8-15 urte bitartekoak), arrunta 4.000 pta., f.ugaria 3.000 pta eta baztandar ez direnentzat 5.000 pta.

-Haurrak (4-7 urte artekoak), arrunta 1.500 pta., f. ugaria 1.125 pta. eta Baztandik kanpokoak 2.000 pta.

Egun bateko sarrerak: helduak 650 pta, gaztetxoak 400 pta eta haurrak 150 pta izanen dira. Abonoak ohi den bezala udaletxeko bulegoetan eginen dira.

### Lekarozko igerilekuko lanpostuak

Aurten Lekarozko igerilekua Gazteen Aterpetik gestionatuko da. Hori dela eta 11 lanpostu betetzeko deialdia egin dute. Tituloa duten 3 sorosle, garbiketa lanetarako eta arropa gordetzen den gelarako 3 pertsona, piszina garbitu eta sarreran egoteko bertze hiru pertsona, koordinatzaile bat eta igeriketa monitore bat behar dira. Nahi izanez gero interesa duenak Lekarozko Gazte Aterpera hurbildu daiteke eskaera orria betetzera. Ez da informaziorik telefonoz emanen.



### Takolo Pirritx eta Porrotx Arraiozen

Ekainaren 11n goizeko 10etan Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek antzezlana eskeiniko dute Arraiozko frontoian. Ekitaldia herrietako eskolek antolatu dute eta Almandoz, Oronoz, Arraioz, Ziga, Aniz, Irurita, Gartzain, Arizkun, Erratzu, Azpilkueta eta Amaiurko 180 haur baino gehiago bilduko dira bertan.

### Arraiozen trafikoa kontrolatzea eskatu dute

Arraiozko saihesbidea egin zenetik gidari aunitz herritik abiadura handian pasatzen da kamioiak aitzindu nahirik. Herritarrak kexu ageri dira sortzen den arriskuarengatik eta neurriak hartzea eskatu diote Baztango Udalari. Gai honekin lotuta herriaren irteeran dagoen stop-a gehiegizkoa delakoan, bidea emateko seinale batengatik aldatzea nahiko lukete herriko gidariek.

IKASTETXEAK




BAZTAN IKASTOLATIK BIDALIA

Apirilaren 3an Baztan Ikastolan JUUL hauteskundeak egin ziren. Bi bozka txartel bete zituen ikasle bakoitzak, lehenengoa gehien gustatzen zitzaion liburuaren izenburua idatziz eta bigarrena gustokoen zuen ilustratzailearena. Zenbatu ondotik Haur Hezkuntzan Ricardo Alcantararen "Tento eta bere hortza"; LHko 1,2 eta 3. mailan Juan Kruz Igarabideren "Ondo joan"; LHko 4,5 eta 6. mailan Angel Lertxundiren "Nire kuleroak" izan ziren bozkatuenak. Ilustratzaileen artean gustokoena Antton Olariaga izan zen. Emaitzak Nafarroako Ikastolen Elkartera bidali zituzten.



S.FCO.JAVIER IKASTETXETIK BIDALIA

Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean maiatzaren 3an "gosari bihotz-osasuntsua" ekitaldia burutu zen. Bihotzaren Fundazioak antolatu zuen eta bertan 3. eta 6. mailetako ikasleak, irakasleak eta gurasoak parte hartu zuten. Lehenik Eduardo Alegria kardiologoak bihotza osasuntsua edukitzeko egin beharrekoak hitzaldi batean aipatu zituen. Ondotik gurasoak begira zeudela, gosari bihotz-osasuntsua egin zuten,fruta,esnea,ogia, oliba olioa, azukrea eta eztia hartuz. Mahainguru batekin goiza akitu zen.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua• aseguru orokorrak
✆ 948 581468 • 948 580433 (etxekoa)
Frantziarako etorb. 12 • Ameztialde 3B • ELBETE

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
AMAIUR • ✆ 948453060

JATETXEA
✆ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

BAZTAN

# Berroetako Mendekoste *bestak*

Apirilaren 1etik 4ra ospatuko dira

**Ortziferia**
**Ekainak 1**

20.30 Altxaferoa, ondotik Doneztebeko txistulariek herriari itzulia emanen diote.
22.00 Joxe Angelek alaituriko herri afaria.

**Launbeta**
**Ekainak 2**

12.00 Haur jokoak.
17.00 Magoa
20.00-22.00 eta 1.00-5.00 Dantzaldia Mindegia anai arrebekin.

***Igendia***
**Ekainak 3**

12.00 Meza Nagusia Elizondoko abesbatzak kantatua. Ondotik luntxa txistulariekin.
13.00 Eskuzko pilota partiduak. Haurrak: G. Gamio-A. Jauregi/M. Unanua-U. Gonzalez. Gazteak: J. Gamio-M. Iantzi/U. Pikabea-A. Irigoien
19.00 Herri kirol erakusketa (aizkora, txingak eta harri jasotzea)
20.00-23.00 Dantzaldia Mindegia anai-arrebekin.

**Astelehena**
**Ekainak 4**

12.00 Mus txapelketa.
14.00 Zikiro jatea Joxe Angelek alaituta.
19.00 Soka-tira; ezkonduak, ezkongabeen aurka.
19.30 Futbito partidua
20.00 Dantzaldia Joxe Angel akordeolariarekin bestak akitzeko.



Berroetako herritarrak soka-tiran herriko plazan



1985. Pierolari omenaldia. Argazkian bere ilobak: Iñigo eta Gorka Altzugarai Pierola

# Almandozko *bestak*

Ekainaren 13tik 17ra ospatuko dira

**Asteazkena**
**Ekainak 13**

13.00 Altxaferoak
22.00 Herri bazkaria FUTBOLIN-ean

**Ortzeguna**
**Ekainak 14**

8.00 Argi soinua Almandozko Abesbatzak abestua
12.00 Meza Nagusia eta prozesioa
12.40 Hameketako herrikoia PILOTALEKUAN
16.30 Pilota partiduak
22.00 KALDERETE herrikoia pilotalekuan

**Ortzilería**
**Ekainak 15**

10.30 ERIZ MAGOA
12.00 Antzerkia "Collins Clown" taldearekin
15.30 Haurrendako motorrak, puzgarriak...
16.30 Plater Tiraketa
20.30 Txokolate jatea eta zinea FUTBOLIN-ean
20.30-22.30 Dantzaldia TETUAN taldearekin
00.00 "Heineken" besta berdea.
01.00-04.30 Dantzaldia TETUAN taldearekin

**Launbeta**
**Ekainak 16**

11.00 Mus txapelketa
14.00 Zikiro Jatea bertsolariekin eta BIXENTErekin pilotalekuan
20.00-22.00 Dantzaldia GAU-BELA taldearekin
00.30-04.30 Dantzaldia GAU-BELA taldearekin
04.30 After Hour DJ-LI-BUS-en aktuazioarekin

***Igendia***
**Ekainak 17**

12.00 Meza Nagusia
15.30 Kart, puzgarri, musika eta abarrekin
00.00 Galzua n!






AZKAIN

# 48 neska eta 11 mutiko azkaindar bildu ziren Dantzari Ttiki egunean Donibane Garazin

Martintxo Altxalili taldeak webgunea pausatu du Internet-en

**...intza, Angela eta Eneko**

Euskal Dantzarien Biltzarrak (Ipar Euskal Herriko dantza taldeen federazioa), Dantzari Ttiki Eguna ospatu zuen maiatzaren 8an. Ikasleak taldeak, urtero bezala, biltzar hortan parte hartu zuen. 48 neska eta 11 mutiko Azkaindar bildu ziren. Eguna, goizeko 11etan hasi zen haientzat, Lasa herrikan. Bertze talde batzuekin hitzordua zuten ikusgarri baten aurkezteko. Han berean bazkaldu zuten, bakotxak ekarri ogitartekoekin.



Azkaingo dantzari ttikiak Lasan eta Donibane Garazin aritu ziren.

Arratsaldean, errubi zelaian dantzatu behar zuten, bainan bezperako euriarengatik, jostalekua ezin baliatua zen. Jai-alaiaren barnean elkartu ziren beraz Ipar Euskal Herriko 35 dantza talde, 3ak eta erditan. Haurrentzat, urteko dantza ikusgarri nagusia da: egun hartan eman behar dituzte urte osoan ikasi dituzten dantzak ikuslego haundi baten aintzinean. 7 probintzietako dantzak ikusten ahal genituen. Eta Azkainek errepertorio zabala duela erakutsi zuen: proposatuak ziren 24 dantzetarik, 14 eskaini baitzituzten.

Azken aldikotz, Maialen Etxeberrik taldea segitu zuen zuzendari bezala, bere kargua utziko baitu urte bukaeran. Eta guk, lehengo dantzari gisa, hainbertze urteko bihotz oneko lana eskertu nahi dugu.

### Martintxo Interneten

Badu orai 7 urte Martintxo Altxalili taldeak Azkainen kantatzen duela. Hastapen batez Bil Tokin elkartzen ziren. Orai herriko ostatuetan errezebituak dira hilabetean behin. 25 bat dira aldi guziz. Orotarat 150 pertsona ikusi ditu pasatzen Martintxok hastapenetik. Maiatzaren 12an, urte guziz bezala J.Marc Iratzokiren paella jastatzeko bildu ziren 60 bat lagun eta giro ederra ezarri zuten musikariek.

Taldeak bere Webgunea ere aurkeztu zuen. Ez bada osoki eraikia ere kantu batzu jadanik ikusten ahal dira, marrazki batzuek lagundurik gogoan hartzeko eta frantseserat itzulpenarekin. Taldeak orroitarazi nahi du nornahi hurbiltzen ahal zaiola, boza ederra izatea ez da galdetua ez baita koralа. Euskal kantua eta giro goxoa maitatzea aski da.

### Atletismoaren biltzar nagusia

Ondoko biltzar nagusia Ekainaren 23an iraganen da arratsaldeko 6ak eta erditan Kiroletan. Aipatuko dituzten gaiak: aktibitate txostena, diru kontuak, Larrungo lasterkaldia eta zuzendari talde hautaketa (hautagaiek beren burua Ekainaren 22a aintzin aurkeztu behar dute). Bilkura afari batekin bukatuko da: izen emaiteak 20a aintzin egin behar dira ( Pierre Berekotxea: 05 59 54 44 14 edo 06 11 07 26 71 edo pierre.berecochea@wanadoo.fr)

### Elkarteen besta ekainaren 24an

1901-eko elkarteen legearen mendeurrena ospatzeko, Azkaingo elkarte gehienak besta baten antolatzen ari dira Ekainaren 24an. Azkaindar guziak gomitatuak izanen dira.


Okindegia Jatetxea

Uxoa

- Okindegian
- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan



Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea. Goxo-goxoa!

MEDIKUNTZA NATURALA
NATURAPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Olnen izerdia
- Larru azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK
- Bizkortzea
- Artritis, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 1etara. Arratsaldez 3-7etara. Ordua eskatu

✆ (943) 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

SENPERE

# Urdazuri errekaren bazterrak garbitu dituzte Laborantza lizeoko ikasleek

## Hemezortzigarren Herri Urratsaz bilan baikorra egin du Seaskak

Franck DOLOSOR

Maiatza hastapenean 3 egunez, garbitze lanak egin dituzte Saint-Christophe ikastetxeko gazteek AAPPN elkarteko Xanti Saubaberen laguntzarekin. Ur-saileko BTS eta BEPAren bigarren urteko hogoi ikasleek Amotze eta Bixta-Ederreko zubien artean erreka bazterrak garbitu dituzte. Untsa dakite garrantzitsua dela ibaia eta bere ingurua zaintzea. Kezkatuak ere agertzen dira zeren epurazio estazioek lan egiten segitzen baitute kondutan hartu gabe gero eta jende gehiago bizi dela Urdazurialdean horrek aldaketak ekarri beharko lituzkelarik normalki. Ibai kontratuaren plantan ezartzearen beha direla diote nahiz eta Loch-Nessaren munstroarekin konparatzen duten, 20 urtez atera eta desagertzen delakotz eta ez baita deus konkreturik aintzinatzen beren erranetan.



Arrok AROTZENA

**Saint Cristophe Lizeoan trebatzen diren ikasleek Urdazuri errekaren bazterrak garbitu dituzte maiatza hastapenean.**

## Enpresen berritzea

### *47 miliun libera gostako da Helbarrungo ur enpresa berritzea*

Herrien arteko sindikatak eta Ondeo eta Etxart lantegiek hitzarmena sinatu berri dute Helbarrungo ur edangarriaren enpresa berritzeko. 1956an eraiki baitzen pentsatzekoa zen noizbait berrituko zela. 47 miliun libera gostako dira 2003garren urtea arte iraunen duten obrak. Berritze lanek kalitatea seguratu eta hobetuko dute, egun guziz 18.000 metra kubika ur hortik pasatzen direlakotz. Denbora berean sortzen arrabotsa apalduko dela diote lan hauek eremanen dituztenek.

## FLASH

### *Herri Urratsaz bilan baikorra*

Aro txarrak ez zituen euskaltzaleak beldurtu eta usaian bezala milaka jende bildu zen aintziraren inguruan Herri Urrats egunean. Antolatzaileen arabera 50.000 lagun bildu ziren besta ederrean nahiz eta aparkalekuetakotasak bazterrak zikindu zituen.

### *Uholdeak maiatza hasera*

Bezperan, maiatzaren 5ean uholdeak gertatu ziren herriko zenbat auzotan eta karrikan ere. Kalte materialak izan ziren eta jendea beldurtu zen 1983ko oroitzapen txarrak gogorat ekarri baitzituen urak. Gertakariak Iberriako urtegia ere aktualitaterat ekarri zuen eta inguruetako auzapezek hitz eman dute dozierrari lehentasuna ematen diotela.

ANTOJOS
boutique pre-mama
Zatoz ezagutzera taila handiaren bilduma berria!
(ez da pre-mama)
Arbelaiz Jauregia • Iglesia karrika 8
(Nafarroako Ibilbidearekin eskin egiten)

Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ✆ 948 580 645

## SARA



Urtero bezala, Sarako San Josepe eskolak hiru eguneko ateraldia egin du, 4 urtetik 9 urteraino duten haurrekin, Puy-le-bon herrirat, Gers departamenduan. Baserri batean pasatu dituzte egun hauek, abereak artatu eta bazkatuz. Ibilaldiak ere egin zituzten laku baten inguruan asto gainean. Azken egunean opari xarmanta eraman dute etxerat: beraiek egindako ogi bat eta erreximenta pote bat.

# Sarako lasterkalariek gaitzeko trenpua agertu dute azken aldian

### Jakes Bernet Bastidan irabazle, Ramuntxo Lamothe Bidarrain bigarren

**Aña Mari eta Fred**

Gure herriko lasterkalariak gaitzeko trenpuan ditugu. Alabainan, maiatzaren 13an Jakes Bernet-ek Bastida 10 kilometroko lasterkaldia airez aire irabazi du. Bertzalde, aste bat lehenago, Bidarraiko ibilbidean hirugarren ateraia zen, eta Ramuntxo Lamothe bigarren. Ez da dudarik emaitza on hoiek, entrenamendu luze eta gogor batzuen ondorioak direla.

Heldu diren asteetan ere, saratarrek bertze lasterkaldi batzuetan parte hartzeko xedea dute, hala nola Ezpeletan, Baigorrin, Azkainen eta Saran, bertzeak bertze. Besta egiteko parada ainitz bala udan, bainan segur gara gure kirolari gazteek neurria hartzen jakinen dutela!

### Gaztetxeko Biltzar Nagusia

Etxola Gaztetxeko aurtengo Biltzar Nagusia ekainaren 16an, larunbatez eginen da, arratsaldeko 6etarik goiti. Usaian bezala, bulegoa berritzeaz gain, ekintzen bilduma eginen da, eta geroko pentsatuak diren proiektuak aipatuko dira, hala nola Gaztetxean berean egin behar litaizken obrak, eta bertze gauza frango.

### Herri Urrats bezpera

Maiatzaren 5ean, urte guziz egiten den Herri Urrats bezperako gaupasa ospatu da herrian. Denetan 2.000 presuna inguru bildu dira polikiroldegian, Olhain ikastola laguntzeko asmoz. Lehen aldia zen polikiroldegia baliatzen zela Herri Urrats bezperan, eta egiazki esperientzia baikorra izan da, geroari begira ere...

### Errugbia presoen alde

Errugbi denboraldia bururaturik, Sarako jokalari multzo batek Hendaiako Hondarraitz zelaian antolatu euskal presoen aldeko txapelketan parte hartu du maiatzaren 8an. Denetan 19 talde ziren eta saratarrek horietarik bat osatzen zuten, azkaindarrekin batean. Gogorki entseatu badira ere, ez dute irabazi. Haatik, herriak bi ordezkari bazituen finalean: Jérôme Pradère (txapelketaren irabazle atera dena Hendaiako taldearekin) eta Pettan Olatz (finala galdu duena Donibane Lohizuneko gazteekin)

Bertzalde, ekainaren 9an, autobus andana batek Pariseko bidea hartuko du presoei elkartasuna erakusteko. Harat joan nahi dutenek izenak usaiako lekuetan eman ditzakete.

### Ondoko ttipi-ttapa Lastiryn

Herriko Etxeko Edantegia erearoaren 10etik 19a arte etsia izanen denez ondoko ttipi-ttapa Lastiry ostatuan eskuratzen ahalko da.

## FLASH

### Bigarren mendi bizikleta ibilaldia

Bi urtetarik behin egiten den mendi bizikleta ibilaldia ekainaren 10ean, igandearekin, antolatuko du Sarako Turismo Bulegoak. Bi ibilbide proposatuak dira, bat 15 km.koa, bertzea 35 km.koa. Abiada goizeko 9etan eginen da plazan; hor berean ere ematen ahalko dira izenak 8etatik goiti. Izen ematea 50 liberetan finkatua da. Xehetasun gehiago: 0559542014.

### Koralaren bidaia Dordogne aldera

Maiatzaren 6tik 8a arte, Sara eta Senpereko 30 kantari Dordogne aldera joan ziren, Rockamadour eta Sarlat herriak bisitatu zituzten. Ez baldin baziren kantatzera joan, hala ere Sarlat-eko elizan sartu eta hango apezak galdeturik «Gure Aita» kantatu zuten. Euskal Herrira denak kontent eta ongi pausatuak itzuli ziren, hemendik aitzin galde frango baituzte. Batzutan astean hirutan aritu beharrak baitire kantuz bai ezkontzetan edo kontzertuetan.

### Elbarrituendako arropa bilketa erearoaren 8an

Erearoaren 8an, ortziralarekin, goizeko 9etatik eguerdi arte kamiona bat egonen da plazan Frantziako Elbarrituen Elkartean antolatutako arropa bilketa kari.

HERRIKO ETXEKO EDENTEGIA
CAFE DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519



# EZKONTZAK

**Alberto Alvaredo Romero** eta **Monica Unzueta Irurtia**, Donostia eta Mutrikukoa, Leitzan, maiatzaren 5ean.

**Jose Gabriel Varela Garcia** eta **Susana Falque Beramendi**, Iturengoak, maiatzaren 11n.

**Fernando Pagola Errandonea** eta **Mª Dolores Romano Gonzalez**, Bera eta Tuterakoa, maiatzaren 12an.

**Angel Parrilla Moreno** eta **Ana Maria Esarte Borda**, Iruña eta Oronozkoa, maiatzaren 12an.

**Manuel Piou Fleta** eta **Nora Bru Pascal**, Zaragoza eta Berakoa, Doneztteben, maiatzaren 19an.

**Jose Mari Burgete Bereau** eta **Rakel Migelena Telletxea**, Arantza eta Igantzikoa, maiatzaren 12an.



# JAIOTZAK

**Ane Salaberria Larrarte**, Goizuetakoa, apirilaren 29an.

**Iker Telletxea Igoa**, Berakoa, maiatzaren 5ean.

**Jone Etxepare Elrio**, Berakoa, maiatzaren 17an.

**Ainhoa Arburua Sagastibeltza**, Berakoa, maiatzaren 18an.

**Oier Rekarte Eskudero**, Narbartekoa, maiatzaren 8an.

**Iker Casillas Lakosta**, Iruritakoa, maiatzaren 16an.

**Leire Mugiro Larregi**, Arizkungoa, maiatzaren 15ean.

**Elene Altzuguren Arregi**, Etxalarkoa, maiatzaren 7an.

**Gexan Garate**, Sarakoa, maiatzaren 3an.



# HERIOTZAK

**Juan Julian Izeta Elizalde**, Oieregikoa, maiatzaren 14an, 84 urte.

**Asuncion Oteiza Plaza**, Elizondokoa, maiatzaren 12an, 90 urte.

**Juan Prudencio Iturralde Azkarraga**, Arizkungoa, maiatzaren 12an, 85 urte.

**Vicenta Cordoba Ezkurra**, Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 23an, 90 urte.

**Juan Ansalas Zubieta**, Etxalarkoa, apirilaren 12an, 94 urte.

**Francisco Maia Bergara**, Lesakakoa, apirilaren 16an, 77 urte.

**Rufina Aizpeurrutia Mendiguren**, Berakoa, apirilaren 18an, 82 urte.

**Genevieve Pesqui Gaillac**, Lesakan, apirilaren 25ean, 94 urte.

**Jose Miguel Mayoz Begiristain**, Eratsungoa, maiatzaren 3an, 72 urte.

**Ramiro Petrirena Aranburu**, Lesakakoa, maiatzaren 11n, 77 urte.

**Bibiano Biurrarena Altzuri**, Sunbillakoa, maiatzaren 16an, 64 urte.


**BAZTAN FUNERARIA**
ORAIN TANATORIO ZERBITZUA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK
Mendiurri, 1 • ELIZONDO • ✆ 948 580373 • 608 776176

**FUNERARIA ZERBITZUAK**
Lesaka-Doneztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
**ANZABAL**
AGENTZIA
■ **Zurich Aseguruak**
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
■ **Lan aholkularitza**
• Nomina eta Aseguru Sozialak
■ **Aholkularitza fiskala**
• Errenta Deklarazioak, IVA...
■ **Inmobiliaria**
• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
■ **Gestoria**
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
Santiago 13 - Tfnoa eta Faxa: 948 580004 - ELIZONDO

**KULTURKARI**
**Inprenta lanak egiten ditugu**
• Kartelak
• Baletoak
• Faktura taloiak
• Bisita txartelak
• Aldizkariak
• ...
Behar duzuna momentu batean egiten dugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta lasai! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta konko duzu!
✆ 948 63 11 88

FUTBOLA

# Gure Txokoako nesken futbol taldea Gipuzkoako ligako txapeldun

Denboraldi honetan ez du partidu bakar bat ere galdu Berako taldeak



GOIKO

**Joxe Luis Altzugarai entrenatzailea, Ana Pikabea, Ana Perugorria, Itxaso Iantzi, Aitziber Gutierrez, Miren Egues, Maite Iturralde, Gorane Artieda, Irantzu Etxebeste, Itxaso Villanueva, Lorea Sarobe, Aintzane Goienetxe, Aiala Zubieta, Ane Bergara eta Edurne Telletxea.**

Gure Txokoako nesken futbol taldeak Gipuzkoako liga irabazi du, joan den urtean bezalaxe. Aurtengoan, gainera, hamar denboraldiko ibilbidean inoiz lortu ez zuen marka bikaina egin du: ez lehenbiziko fasean, ezta igoerakoan ere ez du partidu bakarrik ere galdu.

Joan den denboraldi akabailan, taldeko beterana batzuk futbola utzi egin zuten eta aurtengoan Kontxako hondartzan aritzen ziren neska gazteak sartu dira taldean. Baina Joxe Luis Altzugarai entrenatzailearen erranetan, horrek ez dio kalterik egin taldeari: *«15-17 urteko neska gazteak sartu dira, baina urte aunitz dituzte futbolean hondartzan. Zelai handira nola moldatuko ziren beldurra genuen, baina ederki aritu dira. Kalidade aldetik, gainera, hobera egin dugu eta sekulan izan dugun talderik onena izan dugu, seguraski».*

Aurten ez da Gure Txokoako nesken talderik aritu Kontxan, baina heldu den denboraldian berriz ere hasteko asmoa dute. *«12-13 urteko hogeita hamar bat neskekin entrenatzen ari gara larunbatero kiroldegian eta urrian Kontxan hasteko intentzioa dugu. Hor da taldearen etorkizuna»* dio entrenatzaileak.

## FLASH

### *Baztango VIII. Mendi Ibilaldia*

eginen da igande honetan, ekainak 3. Erratzutik abiatu eta Meaka, Oxinto, Utzelketa erreka, Utzeloi, Otsanaitz, Urbakura, Iparla, Arieta, Ubedo, Elizetxe eta Ernalei barna pasatuko dira, 34 kilometro eginez, Erratzura itzultzeko. Parte hartzeko 800 pezeta ordaindu behar dira eta lehen taldea goizeko 7etan abiatuko da.

### *Ordoki Likoreak I. Txirrindula Saria*

Telcom-Ordoki taldeko Jon Bru txirrindulari beratarrak irabazi zuen Arizkunen lehen aldiz antolatutako Licores Ordoki txirrindularitza saria. Euskaldun Sarirako baliagarria zen lasterketan 117 txirrindulari abiatu ziren eta 45 helmugaratu, 112 kilometro osatu ondotik.

### *Abel Barriola*

Ez da igandeko finalean izanen, baina pilotari leitzarrak txapelketa ikaragarria egin du. Behe-behetik hasita bost partidu irabazi ditu eta finalerdian ere lanak eman zizkion Belokiri.

## Joxe Luis ALTZUGARAI *Gure Txokoako entrenatzailea*



### *"Liga Nazionalean aritzeko arazo bakarra jende eskasia da"*

**Berriz ere mailaz igotzeko eskubidea irabazi duzue zelai gainean. Liga Nazionalean ariko da Gure Txokoa hurrengo denboraldian?**

Gipuzkoan ez dugu partidurik galdu eta ttiki xamarra gelditzen zaigu liga hau. Liga Nazionalean mantentzeko ez genuke arazorik izanen, seguraski. Duela bi denboraldi aritu ginen eta gure mailako taldeak eta txarragoak ere badira. Baina kontua zera da: jende aski izanen dugu horretarako? Bilbora edo Zaragozara joan behar da, partiduak igandetan izaten dira eta Beran betiko istoria da, neskek Ibardinen lan egiten dute asteburuetan. Gainera, Gorane atezainak, hamar urtez aritu ondotik utzi eginen du. Nik eta neska aunitzek goitian aritzeko gogoa dugu, baina bilera egin eta gauza hauek aztertu egin beharko ditugu.

**Aurtengoarekin bost liga irabazi dituzue. Zeinek egin dizu ilusiorik gehien?**

Irabaztea beti gustoko da, baina lehenbizikoa izugarria izan zen. Azken partiduan Aretxabaletan irabazi egin behar genuen eta halaxe egin genuen. Beran, txarangarekin ongietorria egin ziguten. Orain, badirudi denak ohitu egin garela, baina aurten hasitako gaztetxoenei azken honek ere izugarrizko ilusioa egin die.

# AGENDA egunez egun

### ESKU DANTZA TOPAKETA

**BAIONA**

**Ekainaren 9 eta 10ean**
Euskal Herriko malabaristen lehen topaketa izanen da. Tailerrak, jokoak, ikuskizunak, kontzertuak... sarrera urririk.

**URDAZUBI**

**Ekainaren 3an,** igandea, «Ipar Doinua» abesbatzak emanaldia eskainiko du elizan goizeko 11etan.

### KONTZERTUAK

**BERA**

**Ekainaren 8 eta 9an**
Ertz musika esperimentalaren jaialdia. Kultur Etxean arratseko 9etan.

### MENDI MARTXA

**BORTZIRIAK**

**Ekainaren 2tik 3ra**
Presoen aldeko mendi martxa Etxalarretik ateriko da larunbat eguerdiko 2etan eta Beran bukatuko da igandean.

### IKASTAROAK

**LESAKA**

Ekainaren 6 eta 13an lore eta landareei buruzko solasaldiak Beko-Errotan.

**ELIZONDO**

Ikastolak antolatutako astekulturalaren barnean, sendabelarrei buruzko ikastaro irekia eginen da ortzegun eta ortzirail honetan. Urpe elkartean.
Bertzalde, ekainaren 17an ikastolaren bazkaria eginen da beheitiko ikastolan. Apuntatzeko ekainaren 8a baino lehen jo behar da ikastolara.

## TELEBISTAKO TXOKOA




# ERTZ jaialdia, musika esperimentalaren bilgune

Joan den urtean bezala aurten ere ERTZ jaialdiak nazioarteko musika esperimentalaren bilgune bihurtuko du Bera. Aipatzekoa da, aurten, jaialdi honek bertze arte moetei ere ateak idekiko dizkiola. Lehenbiziko egunean musika taldeez gain bi antzerki taldek parte hartuko dute ikuskizunean, bere lana antzerkia baino akzioa bezala definitzen duen DRAMA LABORATEGIA, eta bertzetik Ander Lipusen konpainia, ANTZERKIOLA IMAGINARIOA. Honez gain, larunbatean Convolution taldearekin arituko den SILVIA MESTRESek bere artelanak erakutsiko ditu.
Gainerakoek musika estilo hagitz ezberdinak landuko dituzte, FENNESZ eta MATTINek elektronika, D_INFECTION taldeak hiru lagunen arteko inprobisazioa, Zarauzko CAFE TEATROk musika instrumental eta intimista, CONVOLUTIONek jazzaren eta musika anbientalaren arteko nahasketa jorratuko du, eta azkenik CHARLEMAGNE PALESTINEk, azken 40 (!) urtetan famatu egin duen pianoa jotzeko modua erakutsiko du. Azken hau, 60. hamarkadan (oraindik Velvet Underground sortu ez zenean) New Yorkeko eszena minimalistaren sortzaileetakoa izan zen, eta orduantxe lanean hasi zen Andy Warhol eta gisakoen garaikidea da. Bere emanaldia ahaztezina izanen da, dudarik gabe.

TTIPI-TTAPA TELEBISTAN ekitaldi garrantzitsu honen jarraipena eginen dugu, kontzertuen berri emanez, eta parte hartuko duten artisten emanaldi eta iritziak bilduz.

## DISKAK




*«Noiz arte?»*

**Epelde eta Larrañaga**

*ELKARLANEAN*

Aspaldik erromeriaren inguruan ibilitako bi musikari azkoitiar hauek 1999an elkartu ziren bere lehen diskoa grabatzeko. "Elkarrenondoan" izeneko lan hura pozgarria izan zen trikitixa munduarentzat, belaunaldi gazteen eskutik elektrifikazioa ezagutu duen jenero honentzat iturri zaharreko ur freskoa bezala izan baitzen, herrikoitasunik herrikoienaren adibide.
Bigarren diskoarekin aurrekoaren arrastoa sakondu eta finkatu nahi izan dute azkoitiarrek. Aintzinako sentimenduak, lurrarekiko loturak, iraganeko bizitza sinple baina betegarria... horiek denak elkartzen dira festa bero eta luze batean.
Trikitilari autentikoen senna eta estilo guzia dute Epelde eta Larrañagak. Diskoaren azaleko ar-

## BASERRIA

Datu iturria: Nafarroako Gobernua
(Maiatzaren 11tik 18rako prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 10.800 pta.

**Zerri gizena**
(95-100): 258 pta/k.

**Zerramak:**
168/178 pta./kiloa, bizirik.



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 460
**1.koa** 440
**2.koa** 420
**Urruxak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 470
**1.koa** 450
**2.koa** 430

Ohara: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 34.000 eta idixkoak 27.000 Pta.
**Mestizoak:** urruxak 39.000 eta idixkoak 37.000 Pta.

**Zaldikoak: Pta/k**
Sortuberriak: 555/565
Zaldi-behorrak: 375/385

**Bildotsak: Pta/k**
6-8 kilokoak: 975-1.025
8-10 kilokoak: 850-900

## JAKIN BEHARREKOAK



# Berriz ere azterketak

**Baina gain-gainean dugu, ikasleentzat data beldurgarria arrazoi batengatik: azterketak.**

Segurazki orain pentsatzen ariko zara, "zergatik ez ote dut egin otsaileko azterketen ondotik nere buruari egindu niona?" edo "zergatik ez ote dut egunero ikasi?".

Baina nik diot: "egitan bada norbait egunero ikasten duenik?". Zinez pentsatzen dut gehienok azken egunetarako uzten dugula. Orduan, nola egin aurre azterketa garai honi?

-Garrantzitsua da klasera erregularki egotu izana. Horrela badakizu gai garrantzitsuak eta horren garrantzitsuak ez direnak bereizten, eta beraz kasteko orduan gauzak errexago dira.

- Ez bazara klasera joan, apunte on batzuk bilatu, ez edozeinekin konformatu.

- Gustora zauden toki batean ikasi: zure gela, liburutegia...

- Saiatu egunez ikasten (ezagupenak lo gaudenean barneratzen dira, eta ez da berdin lo egiten egunez edo gauez).

- Saiatu eguneko argiarekin ikasten, edo itsutzen ez duen flexo batekin.

-Denbora galtzen duzula iduritu arren, egin gai bakoitzaren eskemak. Saiatu gaia orri batean edo bitan laburtzen, bertzenaz errepasatzerakoan dena irakurri beharko duzu, eta hori bai dela denbora galtzea.

- Kontuan izan zer azterketa mota izanen den, test gisakoa edo gaia landu behar den horietakoa.

- Ordu terdi inguru ikasi ondotik ordu laurdeneko atsedenaldiak egin.

-Azterketa bezperako gau guzia ikasten ematea kaltegarria da, eta zaila da ordu batzuetan lehendik ikasi ez duzun guzia barneratzea. Ateri lagunekin edo pasiatu... eta deskantsatu.

- Azterketa egunean ahalik eta lasaien joan eta baikorra izan. Oraingoan ez baduzu gainditzen ez da mundua bukatzen, beti dago bertze aukeraren bat. Gainera, nahiz eta ez gainditu, errekuperaketa nola izanen den jakiteko balioko dizu, auniztan gisako azterketak jartzen dituztelako irakasleek.

Rakel AMIGO
Bortziriretako Gizarte Zerbitzua

## LIBURUAK




*Agur sagar beltzeran*
**Xabier AMURIZA**
*BERTSOLARI LIBURUAK*

Idazlan ugari, disko dezente eta, batez ere, bertso aunitzen egilea da Xabier Amuriza. «Agur sagar beltzeran» izenburua duen liburuan, ordea, bere lanari buruzko hausnarketa egiten du bertsolariak, hau da, orain dela hamar bat urtetik honat pilatzen joan den bertso jarriak gaitzat hartu eta bakoitzaren testuingurua eskaintzen du. Jon Sarasuaren hitzaurreaz lagundurik aurkezten zaigun liburu honetan, Amurizaren bertso sorta eta bertso solte argitaratu gabeak elkartzen dira, baita koplak, kanta hitzak eta egileak sortutako doinuen zerrenda bat ere. Bertso sorta batzuk Xabier Amurizak berak hautatu eta garatutako gaiak dira, bertze batzuk enkarguzkoak, gertaera sozial edo politiko bati buruzkoak, eta ez gutti pertsona bati, gehienean hila, eskainitakoak. Bertso sorta bakoitzak bere prosazko iruzkina dakar. Bertsoa egiterakoan bizitutako egoera azaltzen du bertan Amurizak.

# AGENDA egunez egun

[illegible]
**Ekainaren 1tik 4ra**
Xehetasunak 20. orrialdean

**ALMANDOZ**
**Ekainaren 13tik 17ra**
Xehetasunak 20. orrialdean.

**ALTZATE (BERA)**
**Ekainaren 8tik 10era**
Xehetasunak 10. orrialdean

**BERTIZARANAKO EGUNA**
**Ekainaren 2an**
Legasan, 9tan suziriak eta gosaria. 10etan futbito partidua eta piraguak errekan. 12,30etan herri kirolak. 2,30etan aranako bazkaia. 6etan sokatira. 8etan dantzaldia Mikel Salaberriren eskutik. 10etan afaria frontoneko kanpan eta 12etatik aitzin gaupasa Laiotz taldearekin.

[illegible]
**Ekainaren 10ean**
Goizean gasna lehiaketa
Bazkaria eta bertsolariak.
Xehetasunak 12. orrialdean.

**112 TFNORA. DEITU**

**Maiatzaren 28tik ekainaren 3ra**
Igantzi, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.
**Ekainaren 4tik 10era**
Lesaka, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.
**Ekainaren 11tik 17ra**
Bera, Sunbilla, Irurita eta Goizueta.

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

# MERKATU TTIKI

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar dira. tipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazki... 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan... justifikantea tipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak

**ETXEBIZITZAK**

### 101 SALDU

**LESAKA.** Antolu karrikan 65 m²ko pisua salgai. ☎ 948 637 333 (eguerdietan eta 19etatik aitzinera).

**BERA.** 79 m²ko pisu mobleztatua salgai. ☎ 948 630 943.

**ELIZONDO.** Alduides karrikan pisua salgai. Bista ona eta eguzkitsua. Egoera onean. ☎ 948 452 125 (gauetan).

**ETXEBIZITZAK**

### 103 Errentan eman

**BERA.** Pisu mobleztatua errentan emanen nuke. ☎ 948 630 297.

**ETXEBIZITZAK**

### 105 Etxe konpartituak

**IRUÑEA.** Bi ikasle euskaldun beha dira pisua osatzeko. ☎ 948 510 190 (egunez).

**GARAJEAK**

### 109 Errentan eman

**ELIZONDO.** Ostatua traspasatzen da. Errenta ttikia. ☎ 948 585 016.

**LESAKA.** Bajera errentan emateko. ☎ 948 210 990.

**ADOS**

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.

✆ 948 451 841
607 978 656

**ADOS**

**BERA.** Lur-eremua erosi nahi dugu pisuak edo etxeak egiteko.

✆ 948 451 841 • 607 978 656

**ADOS**

**SUNBILLA:**

**14 etxe elkar atxikiak**

**14 etxebizitza modalitate librean**
106 m² + 50 m² garaje + lur zatia = 23.900.000 Pta.



Hasiak gara erreserbak egiten.

Argibideak:
✆ 948 451 841
607 978 656

**GARAJEAK**

### 109-Errentan eman

**BERA.** 130 m²ko garajea errentan emateko Bidasoa karrikan. ☎ 948 630 865 (Tofi).

**LANA**

### 301 Eskariak

**Goizetan** 5 orduz lan eginen nuke. ☎ 696 259 514.

Dokumentuak **ordenagailuz** pasatzen dira. ☎ 620 337 915 edo 948 453 006.

38 urteko **emakume batek** haurrak edo adinekoak zaintzen edo etxeak garbitzen lan eginen luke. Autoa badut. ☎ 948 452 432.

**Neska esperientziaduna,** inguruko herriko bestetan lan egiteko prest egonen litzateke. ☎ 639 961 223.

**Alicia T. Erlanz**
BEHAR DITUZUEN
**LAN TXIKI**
HORIENTZAT
OFIZIALE GUZTIAK
**SERVI - LAN**
Elizagibelo, 5 - DONEZTEBE
Tel. 948450193 - Fax. 948450760

**LANA**

### 302 Eskaintza...

**Sukaldaria** behar ... erdiz lanean aritzek... 950 344.

Berako jatetxe bat... lan egiteko **kamare**... da. ☎ 948 630 3...

**MOTORRA**

### 501 Salerosket...

**Volkswagen Golf** ... gai. NA-AN, 70.000 ... 5 urte, egoera onea... 763 186.

250 eko **Yamaha 12** ... salgai. 95ekoa. Egoe... an. 395.000 pta. ☎ 67... 749.

**MOTORRA**

### 502 Tailerrak

**MENDAUR MOTO...**
✆ 948 45...
Bigarren eskuko ...
Ssangyong Musso TD ...
Vectra TD ... Citroën ...
Mitsubishi ...

**Barnetegia Saran**

ABEGI
euskaltegia...

**DATAK:**
Uztailak 16-18
Uztailak 30 Abuztuak 11
Abuztuak 13-25

Orain multimedia alatama ere ba...

Tel.
943 464 655
E-posta:
**informazioa@abegi.com**
www.abegi.com

**...MALIAK**

### ...Emateko

...artzain zakurra ...nuke. ☎ 948 630 ...

**...ETARIK**

### ...Galdu-aurkituak

...more koloreko sakele-...telefonoa galdu dut. Aur-... baduzu deitu fa-... ☎ 948 630 342.

**...ETARIK**

### ...Salerosketak

...tadora salgai. ☎ 948 ... (eguerdi eta arratsa-...

...markako **CD-errepro-...tatorea** salgai. 25 CD-... tokia, eta berria da ...). 30.000 pta. ☎ ... 105.

...mozko **mendiko bizi-...** salgai. ☎ 610 221 528 ... 948 638 144.

...salgai, ia berria. Al-... berria. ☎ 670 252 202.

...**-makina** dieseIa, AE-... markakoa salgai (sega-... eta rotabatorra bate-...) ☎ 943 528 185 (Deitu ..., eguerdietan edo ...).

**...IREMANAK**

### ...Agurrak

...Zorionak Almandozko **Fer-...ando Agerreri** maiatzaren ... bere iloba **Olhanek** ... urteak bete dituelako. ... bere familiaren par-...

...**Kotto, Imanol, Aina-... Ereko, Xabi eta Iñaki!** ... gogor. Besarkada bat ... lagunen parte-...



alkain

juan alcain
jáuregui, s.a.
eraikuntzako
materialen biltegia
Tel. 943 64 20 25
Fax: 943 64 32 39

ERAIKUNTZAKO MATERIAL EKOLOGIKOAK

- Termobuztinezko blokeak
- Era guzietako mortairu naturalak
- Linu naturala
- Isolamendu termoakustiko naturalak
- Kortxo edo tortotx plaka
- Kortxoa soltean
- Pintura naturalak
- Isolamendurako paper ekologikoak
- Parketak, tarimak...
- Era guzietako estaldurak
- OSB Kronospan
- Keramiko apaingarria
- Harri naturalak
- Ura kontrolatzeko sistemak
- Saneamendurako hodiak (PP eta PE)
- PVCrik gabeko kableak

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 9:30 - 12:30 / 14:30 - 19:30
Larunbatetan: 9:00 - 12:30

Eskatu gure katalogoa

Mendelu industrialdea HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



GRUPO TANATORIO TALDEA

# IRACHE

ARDAIZ - AZKONA - ORTIGOSA - UNZUE

Funeraria sektorean mende bat baino gehiagoko esperientzia zuten Nafarroako lau familik, Espainiako lehendabiziko tanatorioa sortu zuten 1975ean, "Tanatorio Irache", zabaltzen ari den talde baten sorrera.

## NAFARROA OSOAN

Nafarroako edozein lekutik, soil-soilik telefono zenbaki hau markatuz, pertsona maite bat galtzen dugun une zail eta gogor horietan beharrezko guziaz arduratuko da GRUPO TANATORIO IRACHE taldea.

## 900 704 704




GRUPO TANATORIO IRACHE taldeak tanatorioak eta beilatokiak ditu Iruñea, Andosilla, Azagra, Kaparroso, Martzilla, San Adrian, Villafranca-Alesbes eta Doneztteben. Eta laster berriak zabalduko ditu Burlata, Agoitz, Elizondo, Faltzes, Lesaka eta Nafarroako bertze herrietan ere.

**ZERBITZU BEREAN, ETA PREZIO BAKARREAN, GURE TALDEKO TANATORIO ETA BEILATOKI BAT BAINO GEHIAGO ERABILTZEN AHAL DUZU.**




